


jakim



AURKIBIDEA

eskutitz irikia.....	1
ezkertiar berriak.....	9
euskal arteaz.....	21
alemaniar lirikaz, euskal poesiaz.....	24
"les Chaises" edo Ionesko'ren mundua	42
cusko oldozkerea.....	48
aldakuntzaren agerpena.....	53
JAKIN'en urteroko billera.....	68

SALNEURRIA

urtekoa: 100 pezta,
alea: 25 pezta.
atzerrian: 2 \$.

pecha Intxaurti.....	1
Yikardo Arregi.....	9
ayalde.....	21
jose azurmendi.....	24
juan mari torrealday.....	42
ur zago.....	48
xalder kintana.....	53
jakin.....	68



jakin

— 25'gna. Arantzazu'n — 1967 —

zuzendaritza ta zabalkundea:
(dirección y administración)
arantzazu — oñate — gipuzkoa.

**arantzazu'ko frantziskotarren
ardurapean argitaratua.**
(edita: la comunidad franciscana
de arantzazu)

zuzendari: a. kandido zubizarreta
(director; fr. cándido zubizarreta)

argitaratze-eguna:
1967'ko agorraren 30'ean.
(acabóse de imprimir:
el 30—IX—1967).

depósito legal: SS. 323-1964.

EUSKAL GAZTERIA
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea euskerari laguntzea da, euskerazko kultura egiten saiatzea.

herriaren izpiritu ta
kulturaren alde

Irakurlearentzat argipen laburra, **Joseba Intxausti**'ren idazkia bere kontestuan jaso dezan.

Aurtengo "Z. ARGIA" asterokoaren 209, 211, 217 eta 221 zenbakietan zehar, polemika trixte ta penagarri bat erabilli da, "**Baifia zergatik eta zertarako euskaldun?**" **Jose Azurmendi**'k jaulki zuen galdera famatu hartan bide harturik (ikus "Z. Argia", 205).

Egin bazuen egin, euskal giroaren une nahasi eta urdurienetako (eta ez horregatik txaharrenetako) batean egin zuen **Azurmendi**'k galdera hau, atzerritik. Hori dala-ta, prolema behar bezala ulertu izatea ifoiz merezi ez zituen erantzun eskas eta asmatu ditezkean izentzahar guztiak jaso ditu bere gain. "Unamuniano", "barojiano" ta "españolista"-tik hasi ta "traidore"-tza! salatzeraiño...

Euskaltzale itxiok: aski da. Aski da intransijentzi ta integrismo ahul hortatik. Euskal belaun berria konformagaitza eta egizale izatea, ez da gure errua. Gure eskubide osoan gaude holamoduzko galderak egitean, eta euskaltasunaren prolemak erromantizismu hutsetik at hondotik planteatzeko.

Gure gaitza ez da besterik, aspaldidanik: defentsa egarri eta seguridade nahi amorratua, benetako prolemak azpiratuaz; euskaltzaletasunaren sail batean gehiegi finkatu den gaitza.

Intxausti'ren ESKUTITZ IRIKIA irakurri ondoren, eskandalizatu ez baiña, berpentsatu bitzate beren argumentuak **Azurmendi**-rekiko polemikan parte hartu dutenek. Eta, jakin bezate, oraindik zutik jarraitzen duela bere galderak, ez baidute denen artean argi txinta bat ere sortu hainbeste "erruki" ta hitz alferrekin.

ZUZENDARITZAK _____

Euskal-herri'tik Alemania'ra

ESKUTITZ IRIKIA

Joseba Intxausti

Adiskide:

Euskal-herri'tik idazten diat. Bi urte, hemengoekin nere hartu-emanak atenda nizkiala. Harrezkero zubipetik ur asko eraman dik ibaiak. Alboetatik, han ta hemen, iturri berri askok handitu diate erreka zaharra. Etorkizuna, berriz, sekula baiño aldatuagoa aurkituko diagu beste bi urteren buruan. Berri, eztenkada ta pentsakizun ustegabe aunitz idoro dizkiat aberriratzean. Ta esan dizkidatenean artean...

Esan zaidanez, gorriak eta beltzak entzunerazi omen dizkiat hiri oraingoan. Hori izan duk lehenik hemen esan zaidana. Nik omen nionari jarraituaz, traidore ustel bat omen haiz. Ta ni ere beste hainbestetsu herbestearen isilpean galdu naizelako. Hire sorterri-miñak ez diate, nunbait, gehiegi balio; herri-miñak eta lanak zertarako dituk...

Urliak dionez, gaiñera, kanpora joan geranok kol-dar izuti batzu gaituk. Ikaskizun ta gaiñerako burugabekeriak aitzaki ederrak, halajaiña!

Ta hik galdera "penagari" bat egin duk: "Zergatik eta zertarako euskaldun?" Aberkideak asarratu egin zaizkik. Galdera burugabea omen duk. Ez zekiat. Euskaltasuna ezarri zaiguan gizaera bat duk, geuri dago-kigun gertakizuna. Hartu egin behar diagu, eman zaiguan izana onartu dugun bezelaxe. Izatasunaren, gizatasunaren, euskaltasunaren eta izangriñak bultzata, iruten ari geran ekintzaren zergatiaz galdetzea txorakeria hutsa duk, esaten denez. Beraz, hire galdera, tajugabea duk. Ba litekek...

Hala ta guziz ere, hik eta nik, dirudienez, ezin

ahaztu dizkiagu metafisikakeria horiek, ezin nunbaiz buru-kaskoepan ito galdera trakets horiek. Izpiritua metafisika-pi-piak jota zeukeagu. Gure hau alienazio-modu (honela esaten duk, ala?) okerrenetakoa duk: gauzen eta gertakarien zergatiaren jakin-egarria sasi-gizaera baten ondorio heri bat duk. Dena dela, hire zoritxarreko galdera horretaz zerbait esan beharrean nagokik. Ta honetarako ba zituat nere arrazoiak: pentsatzen dudana pentsatzen dudalako ta esan ez ditudanak ezarri zaizkidalako. Noan, ba, gaurko honen zerera.

Atzerrian, erdaldunen artean, nik ez diat nere burua euskaldun-beharrean sumatzen. Ba zekiat aitorten hau eskandalo-bide izan ditekena; saia nadin, beraz, egia hori argitzen. Nere hori dena gertaera bat duk, gizarteak eta kulturak bizkarreratu zidatean gertakizuna. Neri herbestek ez zidak sorterrri-miñik sortzen, erdaltasun-zamapean erdaldun sentitzen diat nik nere burua. Hala ere ez diat uste ezbehar honen erantzunkizuna nere gain bota dezaidaketenik. Hori, euskal-sentipen baten eskasia alegia, tentaldia duk agian, pekaturako arriskua, baiña barnean daramakidan gertaera "itsusi" honen billa ez nauk ibilli ni: barnera, bestek sartu zidak. Nik, nahiko txundituta, idoro egin diat, aurkitu, nere kolko ta arima "pekatarian" neramakian gertakizun lotsagarri hori.

Gaixorik negok, noski, baiña heriak ba dik, gaitzak behartuta, galderak egiteko dretxoa. Hire galdera "kaltegarria" ez duk hik asmatua: hik eta nik eta beste hamaika euskaldunek berengan eta beren ahotan darabilkitena baizik. Ta ez diat uste galdera honen "egia", edadura ta benetako izatea iñork uka dezakeanik: galdera hori izan Euskal-herri'an ba duk eta ezingo diagu ez-ikusituta, azkenean galderaren tajugabekeria ikusarazteko izango bada ere.

Gizonaren griñarik gizatiarrenetakoa bat galdetzea izan duk beti, ta intelektualen bizitza ere, hain zuzen, horixe: izadiari galdetu, gertakariei galdetu, gizonari galdetu. Sokrate'ren maieutika gu jaiotzerako asmatua zegoan, gaizki ez banago, giza-adimenaren galdera-griña horren adigarritzat. Hik ere galdera bat egin duk, eta

edozein zeretari dela, horretarako eskubidea ukatzeko egundoko arrazoiak beharko zituk edonork. Pentsaketara behartzen gaituen galderak, azkenean argi berria ekarriko ziguk.

“Zertarako euskaldun?”, galdetzen diate, euskerak ogibiderik ez duela urratzen ikusi duten askok. “Zertarako euskaldun?” ziotek alperrikako burrukarik nahi ez luketen zenbaitek, patrikari begira ez baiña geure gizatasunari misterioa argitu nahirik. Galdera hau ez duk guri dagokiguna bakarrik, eta beste herriek ere hori bera edo berdintsu diate. Españiako 98 belaunaldiak, esate baterako. Bizi-krisis bat duten herriak erantzun beharrekoa duk hori, “anai apartatuak” gureganatu nahi baldin baditugu behintzat.

Galdera hori kaltegarri gerta dakigukela? Segun nun eta nola egiten dugun; segun nola aztertzen dugun... Umeek, ez herriek bakarrik, galdera erantzungaitzak egiten ba zekitek. Ta gure haurrei erantzuna billatzen ahalegintzen gaituk, kale-baztarretan eta kanpokoengandik, behar ez duten erantzunik jaso ez dezaten. Ba litekeek galdera hauetarako lekurik egokiena aukeratu huana ez izatea, baiña hori asmatzeko lekurik ederrenean ez hago hi, hor atzerrian eta bakarrik aspalditxotik... Eztabaida haretan hori huan beharbada kolokarik okerrera, baiña —dakidanez— ez zian inork ikutu.

Gure euskal-fedearen gaitzak asko dituk, eta ez samurrenak barruan daramazkigun zalantza ta galdera hauek. Zergatik ez aurpegi eman benetan ukan ba ditugun arazo horieri? Eterodosia ta erejia direla? Begi biok itxita ezer gutxi konponduko diagu. Alferrik gabiltzak; bizitzaren enbido ta ordago horiek pasaeziñak dituk, erantzun beharrekoak. Mingarri dela? Bai, baiña borondate onez gabiltzanok jakin behar genikek galdera galdetzeko dela, ta galderak ez duela —berez— ezer ukatzen; bestalde, bide-sasiak garbitzea dela bere zeregiña. Besterik ez.

Euskaldun izan ta irautea izankizun gogorra ta, askorentzat, gogaikarria duk. Gizonaren euskaltasuna nahiz erdaltasuna haren gizaera “betetzeko” dituk,

izaera-modu berezi batez gure izankizuna apaintzeko ta egiteko. Gizonago izan gaitzen. Jatorriz euskotar ditugun aunitzei (ta herbesteratu batzuei), beren gizaera erdal-giroz mardulkiago osatuko ez ote dutenaren zalantza sortzen zaiek hor barruan. Sorterrian ba dituk honelako dudak, eta eskatzen zuten erantzuna eman ez zaielako "anai apartatuak" ere.

Horientzat eta euskaldun bilakatzen burrukatu nahi genuenontzat ez duk batere kaltegarri elkarrekin pentsatzea. Erdalduntasuna erosoago duk "geuretasuna" baiño, ta nik ez dizkiat oraindik, behin betiko, nere barneko zazpi deabru tentatzaille haiek, erdalkeriarra tiratzen nauten haiek, uxatu. Ez diat euskal-kontzientzia garbirik. Atzerrian nik ez diat euskaldun "on" guziak behar duten "euskaldun izan-beharrik" sumatzen nere baitan. Nere fede eskasa burrukan zebiltek izanean eta bizi irauteko. Iñoiz, ta askotan, nere gizatasuna hobetzeko orain baiño baliotsuago sentitu dudan euskal-izaera zaharrak, egun ez zidak hain ozenki "aidaka" garrasi egiten.

Euskaltasunaren illunaldi honetan, galderak bor-borka sortzen dituk ariman. Ta horiek (gure aberkideenak bezelaxe) erantzunaren billa doazkik. Ba zekiat erdaltasunak zanpatuta ere, hori dena baiño indartsuago izango dela bizitza, ta nere euskaltasuna ezingo diat erabat ukatu; heriotzaren aurretik, ordea, maila ta mota askotako heritasunak jasan zitazkek gure izpirituak. Mini-euskaltasun batekin ere ase litekeek (integrismorik itsuenera joango ez bagaituk ere. Horrek ere nazkatuta naukak-eta).

Herri baten nortasuna gu bakoitzagan prolematikoa izan ohi duk, norberak egin beharrekoa, geuk irabazi behar duguna, herritasun hori giza-izpirituaren ondorio delarik, gure izpiritu librean jaso behar baitiagu. Beraz, nere gogoa herritasun bat neronegan mamitzera bultzatu nahi dudanean, ekintzarako arrazoiak ta balio-ideiak eskeiñi behar zizkioat nere buruari: "zergatik eta zertarako" lan egin? Euskaltasunak, erlijio biziak bezela, apolojetika baten premia dik.

Nik, neuretzat (eta dakidanez), ez diat euskaldun

izan beharrik nere baitan sumatzen. Zer diodan? Honatx: hizkuntza, mintzabide duk, ta, nahi bada, pentsabide ta sentibide. Mintzabiderik, pentsabiderik eta sentibiderik izan dezadan, nere "nitasunak" ez dik euskera-premi sentigarririk. Izpiritu-barnea jaulkitzean, erderaz hitz-bide zabalagoa aurkitzen diat eta neregán daramakidan bizia samurrago ta libreago ematen, beraz. Pekatari ote nauk honegatik? Ez jakin.

Ta ez duk erosotasunarekikoa soillik: eskasia horrek ez nauk, gaiñera, kezkutzen, ez zidak euskaramiñik sortzen. Ez nintzean honela orain hamabost urte; zahartu egin nauk geroztik. Gaiso nagoanik ez zekiat, baiña bai gertaera bat dela. Hau aitortzean, beste euskaldun askoren "aje" bat aipatzen diadala uste diat, gaiñera. Ta gertakizun hau —euskaltasuna hain urri sentitzea, alegia— gertakizun inportantea duk herria maite dugunontzat.

Zer egin behar diat, beraz, egun batez eman zitzaidan hizkuntzarekin. Baztertu, desegiten ahalegindu ala zer? Hire galderak, hemen, arima-giro honetan dik zeregiñik argiena. Izpiritu-hutsune honekin, zergatik eta zertarako euskera? Sentiera honetan bi betekizun izan zitzazkek eta zituk neretzat: lehenik, gizon naizenetik eman zitzaidan izpiritu-munduaren zerbitzutan, ta, bigarren, herri ta populu baten nahia, bizi-nahia, bizkortzeko ta mantentzeko.

Amak bere bihotza euskeraz erakutsi zidean; aitak ere bai, senideek berdín. Jaio nintzanetik, horiek denak munduaren izaera euskeraz erakusten saiatu zaizkidak. Maite ditudan guzión izpiritu maitagarria euskeraz bizi duk, euskeraz ari duk, euskeraz mintzatzen duk... Guziok euskeraz luzatu zizkidatek beren nortasunaren atalik bikaiñenak, eta zor diedan eskerrona ukaeziña duk. Maite ditudanon eskeintza honi erantzuna euskeraz zor zaiok: nere mirespéna ta esker-maitasuna euskeraz eman beharko zizkieat, bidezko denez.

Nere gizatasuna —guziena bezela— gizarte batean mamitu zidatek. Izan naizen honetantxe gizarte horrek jarri nauk. Ta eman zaizkidan asko euskeraz eman zidak gizarte horrek. Eskerronez natorkien horientzat

(familiarentzat, gizartearentzat), ba diat nik ere nere barne-izadia, ta horiek har dezaidaketen erarik onenean eskeiñi beharko zieat.

Arrazoiketa hau, neretzat, bidezkoa duk, eta ondorio horrelara erakarri nauk: giza-legeak, euskal-inguru guziari euskeraz egitera naramakik.

Ta beste arrazoirik bai ote da? Zergatik eska ote zezaiqukek euskerarik gure Herriak? Guziok zekiagu nolako txiki-zioak desegin behar duen Biet-nam herria ta hango lurrak. Russell, Sartre, Europa'ko gazteria, Ameriketakoa, nunahiko intelektual aunitz..., denak deabrukeria horren kontra ari dituk. Herri haren alde gaudek, haren bizitza ta libertadearen alde. Herri baten gogoa ta izana zanpatu nahi dela ikustean, justiziaren alde ekitera deituak sentitzen gaituk.

Euskal-herriak, edo herri honen parte batek, ere euskeraz egin nahi dik. Gure lurralde hauetako hamai-ka milla gizonak euskeraz pentsatzen diate, euskeraz sentitzen, euskeraz bizitzen. Euskeraz ziarduk beren gizaki osoak, eta horretantxe irauñ nahi diate. Borondate hau beren askatasunaren agerbide duk. Euskal-izaera aukeratzeke ta hazitzeke duten libertadea (dretxo!) zanpatu nahirik datozkien indar guziak injustizia paregabe bat egin nahi diate. Ta ni deabru-indar guziora kontra negok, ez neuk neuretzat euskera behar dudalako, nere herrikideok beren gizaera horrelaxe nahi dutelako baizik.

Gizona errespetagarri duk beti, ta berdin bere ekin-tza. Ekintza hau, ordea, gizagintza baterako diardue-nean, bereziki errespetagarri. Euskaldunak ere honetan-txe ari dituk: euskaltasuna, gizonago izafeko nahi diate. Ta bestetarako balitz, ez likek zeregin horrek bikain-tasun ikaragarririk. Gizonaren euskalgintza honetan, berriz, oztopo-jartzaille gehiegi bideratu zaizkiguk. Herri-tasun baten aurka doanak gizona bera ez dik errespetatzen: antihumanismoa besterik ez duk hori. Nik ez zekiak zein den hobeago, erdera ala euskera, baiña nik ez diat iñori, bata nahiz bestea, ezartzeko eskubiderik. Gizon librearen kontra joatea ez duk noski eskubidezko. Norberak erabaki dezala bere bidea, zer duen hobeago,

erdera ala euskera. Baiña, hori bai, erabaki horrentzat behar diagun libertade-giroa gizartean sortuaz. Biet-nam herriaren alde dagoana, egon bedi herri guzien alde. Gizonak, ezertarako baldin badu, bere izaera-modua aukeratzeko eskubide osoa dik. Giza-askatasun honen aurka negok, eta egongo nauk.

Herri honek, bere izan-dretxo aurrera eramateko, nere euskera ta euskaltasun eskasak nahi bazituk, nere bostekoa ezingo zioat ukatu.

Joxe betikoa, hiri ere justizia bat zor nian. Traidore omen haiz, traidore omen gaituk: jeiki bitez akusatzaillak, harria har eta bota hik hainbat maitatu ta lanegin duenak.

Besarkada bat.

Euskal-herri'an, 1967'ko agorrean.

Joseba INTXAUSTI.

ezkertiar berriak

Merleau-Ponty filosofilaria bere azkeneko liburuan honela mintzatzen da:

*“Errealidadean ordea jakintzarekin, teknikarekin, artearekin, ekonomia-
ren aldetik zituzten artu-
emanak etenda zeuzkate-
larik historiaren eta philo-
sophiaren ideia aundiak
erabat aulduta arkitzen
ziran, eta —onenetan ez
ezik— politikan erabilt-
zen zen gogortasuna ta
rigorismoa, alperkeriare-
kin, kuriosidaderik ezare-
kin eta inprobisazioarekin
elkartuta zegoen. Politi-
karen eta philosophiaren
arteko ezkontza honela-
koa baldin bazen dibor-
zioarekin pozitu besterik
ez dugula ez dirudi!” (1).*

rikardo arregi

Itz hauen artean garratzenak, “poli-
tikan erabiltzen zen gogortasuna ta ri-
gorismoa, alperkeriarekin, kuriosida-
derik ezarekin eta inprobisazioarekin

(1) Maurice Merleau Ponty, Signes, Libraire Gallimard, Paris 1960'gn. Liburuaren itzaurrean arkitzen diran itzak dira auek.

elkartuta zegoen" diotenak dira. Garrantzak gaurko politika, politikologia eta politikazaletasunaren barruan arkitzen den egon eziñaren muiña ondorena azaltzen dituztenak diralako. Egoneziñ hori ba dela, hortan aitua diran guztiak aitortzen dute, baiña errealidade honekin amaika modu diferenteetara enfrentatu diteke. Enfrentatzeko modu hoiaren artean ba da bat guri orain interesatzen zaiguna: *ezkertiar berriena*.

"The new left", "la nouvelle gauche", "ezker berria", nork ukatu ez dituela iñoiz entzun? Olatu berriko politikazale gazteen esanetan maiz arkituko diran itzak dira. Zer da hori, ordea? Lehengo politikaren molde zaharretan ezin jokaturik, politika arazoetarako bide berrien billa dabillan gaztediaren abiadura dela esan diteke, ezkertiar berrien egon-eziña nolabait definitzerakoan.

1963'gna, ezkeroztik Z. ARGIA'n, nazio-arteke politikaren albitari izan naizelako, lau urte hauetan politika gertaera ta politikalarietzaz, presaka batean, askotan bi aldiz pentsatu gabe, beti obetogo egiteko asmoetan, zenbait gauza esan beharrean arkitu naiz. Gaiñera, nere idatziak polemiko itxura artu zuten ezker, nere iritzi aldakorrak artikulu hoietan nun-nahi arkitzen dira. Iritzi aldakorrak, baiñan bere aldaketan zain zuzendari bat dutenak, aldaketaren logika bat dutenak. Horregatik, ezkertiar berrien gain itzegiterakoan, aldeko, partidista naizela aitortu behar. Ez bai litzake, beraz, jatorra izango asieran aitorketa hau jarri gabe idazten astea. Ezin dezaket beraz lantxo hau egin nere burua bere baitan sartu gabe. Ezin dezaket ezker berriatzaz kanpotik idatzi, barrutik baizik.

manikeismoa

Bizia den guztiak bezela, ezker berriak amaika kontradizio daramazki bere baitan. Alde batetik politikalarri zaharren berritsuketazaletasunaren lekuan teknikotasuna ta seriedadea ezarri nahi baldin

badute, bestetik, ezarritako ordenarik-eza-dun gizartea lertuerazi nahi duten ezkerro, anarkiarako abiadura dute.

Carlos Santamaria lagunak, bein batean, Z. ARGIA-n idatzi zuen artikulu batean ni aitaturik, politikan manikeista izateko eskubiderik ez zegoela esan zuen. Politikan manikeistak diranak, alde batean erabat onak diranak eta bestean erabat gaiztoak jartzen dituzte. Honelako joera bat politikan gezurrezkoa dela ez du inork ukatzen, politikaren alorrean gutxienez. Artikulu hura azaldu zen ezkeroztik, zenbat aldiz ez dut entzun izandu manikeista naizela! Nik esandakoak eztabaidatzeko arrazoiak arkitzen ez zitunak, manikeista nintzala esatea nahikoa zuen, mere arrazoiak gehiago aztertzen ez saiatzeko, hori esatearekin, bere iritzian, bat batean kondenatuta arkitzen nintzalako.

Aldeko naizela esan dut. Aldeko naizen ezkerro, manikeismo iges egiteko dialektika eten-gabe batean bizi naiz. Politikan aldeko ez danik ez da arkitzen, aldeko ez dela dionak ere politika egiten baidu. Politika egiteko ez da derrigorrezkoa partidu edo sindikatu batekoa izatea, nahikoa da gizartean bizitzea. Norbait bere gizarteko xistima kondenatu gabe bere baitan bizi bada, xistima horren eustaille bihurtzen da. Ba diteke kontrakoa dela itzez esatea, baiñan bere kontrako hori bere bizitzan frogatzen ez duen bitartean xistima honen aldeko izaten jarraitzen du. Jeneralean, politika gizarte bateko moldeak aldatu nahi dituztenak egiten duela sinistarazi nahi dute. Gaiñontzekoak ez omen dute politikarik egiten. Sinistarazi honen arrazoiak garbi daude: lehen esandako sentidu hortan politika egitea moldeak aldatu nahi izatea baida, nahikoa izango da, politika zikinkeri bat dela-ta, nerekoien eginkizun bat dela zabaltzea, ezarritako moldeei irauin erazitzeko.

Politikan aldeko diranak, hau da, danak, bi erataria izan ditezke, kontzientziarekin edo kontzientziarik gabe. Politika egiten dutenak lehendabizikoak dira. Bigarrenak politika **sufritu** egiten dute, sufritzea, kasu hontan, politika egitea baida. Politika sufritzen dutenen artean, ez jakiniaz sufritzen dutenak alde batera uzita, gaiñontzekoak etsita daudelako egiten dute. Etsipen honek sustrai asko izan ditzake; emen interesatzen zaiguna ordea zera da, etsipen hori dela zenbaitek politika sufritzearen sustraia.

Politika egiten dutenak, esandako sentidu jeneral hortan, ezarritak dauden moldeekin, gutxienean erabat, ados ez daudelako egiten dute hori. Zerbaiterekin ados ez badaude, zerbait ohea egia ditekela

uste dutelako izango da, noski. Ta Politika egiten dutenez, berak onaren aldetik daudela uste dutelako izango da, ta besteen moldeak txar eta desegokizat artzen dituztelako. Puntu hontara irixterakoan, beraz, manikeismo kutsuko abiadura batean sartzen gera. Politikan ekillea izateko derrigorrezkoa da zerbait manikeista izatea. Batek, berak defenditzen duena bestearena baiño ohea dela usteko ez balu, zertarako egingo luke burruka?

Ba dakit beste gauza bat dela erabat eta benetan manikeista izatea, mundua bitan erdibitua dagoela uste izatea, batetik onak eta bestetik gaiztoak daudela uste izatea. Ta sentidu hortan politikolari, politikagille, politikazale edo politikologo batentzat manikeista izateko eskubiderik ez dago. Dudarik gabe. Baina ezin dezakegu ukatu politika egiten dutenak etenik gabeko egon-ezin dialektiko batean arkitzen dirala, une bakoitzean bakoitzarena bestearena baiño ohea dela uste izatetik bakoitzarena dela **Ona** ta bestearena **Gaiztoa** uste izatera dagoen muga lertu ta apurtu ditekela. Ta egon-ezin hau aunditzen ta zailgotzen dijoa moldeen eraberritzea radikalago ta sustraitikago planteatzen den neurrian. Erreboluziogille batek lehen-dabizi gizartea desegin behar dela dio, gero berria jasotzeko. Ez ote da hori desegin beharrekoa dela **Gaiztoa** ta jasotzekoa **Ona** uste izateko tentaziorik gogorrena? Aldaketa txikiak egin nahi ditunak, ordea, gizarteak puntu batzuek besterik ez dituela konpondu behar uste du. Horregatik, ezin dezake uste izan gizarte hori txarra danik, gehienan txar xamarra besterik ez dela usteko du.

Manikeismoaren akusazioa ezkertiar bati egitea izan ditekela gauzarik errezena da. Ezkertiarrek ere beñere ezin dezake ahaztu, ordea, erabateko manikeismoan ez erortzeko etengabeko egon-ezin dialektiko batean bizi beharko duela. Egon-ezin dialektiko hau milla arpegi diferenteekin azalduko zaio bere politikagintzan. Nahi danaren eta danaren artean dagoen dialektika da. Realismoaren eta utopiaren artean dagoena. Izan ere, ezin ukatuko dugu ezkertiar guztiak ameslari bat izkutatzen duela bere baitan. Ameslari izateak, errealidadetik iges egiteak ez ezik, errealidade berri bat ekarri nahi izatea adierazi nahi baldin badu ere.

Politika, futboleko partidu bat arbitroak ikusten duen bezela, ikusi ditekela uste duena engainamendu aundi batean bizi da. Horregatik, ez dut ukatuko lantxo hau partidista bezela, obeto esateko, aldeko bezela idazten dutela, ni alde batean nagolako, batzuen eta zerbaiten aldeko naizelako, ta beste batzuen eta beste zerbaiten kontrako.

Amaika eztabaida izan dira politikolari ta philosophilarien artean ea moldeak aldatzea nahikoa den gizona egiteko ta ea politikaren eginkizuna moldeak aldatzea den edo baita ere gizona ohea egitea. Batzuek diotenez, bein moldeak premi bezela aldatu ta eraberritu ezkerro, gizona berekasa ona litzake. Besteak, berriz, gizon bakoitza barrutik ondu bitartean ez dagoela ezer egiterik diote. Bi mutur hauen artean mailla diferente asko daude. Ezkertiarrek sinismen gehiago izango du moldeetan eskuindarrak baiño, eta honek gizon bakoitzaren konbersio barnekoian ezkertiarrek baiño. Historiaren barruan honela gertatu da gutxienean. Behar bada, gizonari dago-kionez, optimistagoa da ezkertiarra eskuindarra baiño. Ezkertiarrek, gizona gaiztoa gizarteko moldeak bakarrik egiten dutela, uste izateko joera du. Beraz, gizona ona biurtzeko molde hoiek kentzea nahikoa dela uste izateko abiadura izango du. Eskuindarrak, berriz, pesimistagoak dira. Gizona, gutxienean, gaixto xamarra dala diote. Hauen-tzat orduan, premi aundienetakoa, gizon bakoitza ona egitea dela uste izatera joko dute. Ez dut esaten bata edo bestea egiten dutenik, bata edo bestea egiteko joera dutela baizik.

Eztabaida hau aitatu besterik ez dugu egin, esaten ari gifanarekin lotuta zetorrelako ta adierazi gabe ezin genduelako utzi. Ezta-baida bortiz hau beste baterako uzten dugu.

— premi sortaratzailleak illa arren

Ba da politikologian lege bat gure auzi hontarako oso in-portantea dana. Lege honek dionez, partidu politikoak eta elkarteak sortuarazi zituzten beharrak ill, baztertu edo ezereztu arren, ba dutela hoiek bere baitan iraunkor den inertzi bat. Tradizioa duten partiduak ba dute bere baitan garairik txar-renetan e'a estuenetan irauteko indarra. Ta iltzea asko ta asko kostatzen zaie. Partidu ezkertiarrek burokrazi indartsu xamarra izaten dute. Interesen partiduak, eskuindarrak eta konserbadoreak, apenas behar duten organizaziorik, bere bai-tan biltzen diranak diruak elkartzen dituelako (faszista par-tiduak alde batera utzita, hauek zera berezi batzuek dituztelako), eta interes honen menpean elkartzen diranez apenas behar duten ezer gehiago partidu bat osatzeko: burokrazi bat, militan-teak, dotriña bat etab. Ezkertiar partiduak, ordea, bere diru-rik eza berdintzeko, ezereztuko, militanteak izaten dituzte, do-

trifia sendo bat eta baita ere, partidua zerbait azten asitakoan, burokrazia, txikia bederik ere, izaten dute. Burokrazia partiduak bere organizazio ta administraziorako dauzkan gizon apropos batzuek osatzen dute. Hauek ezkertiar elkarte ta partidu politiko guztietan arkituko ditugu, anarkismoa alde batera uzten baldin badugu ere.

Beti gertatzen da partiduaren bizitasuna burokrazi honen eskuetan kontrolatuta gelditzea. Ta ba da "partiduko abertzale-tasuna" izeneko fenomeno bat. Partiduak, eta batez ere bere burokraziak, azkenean "partidua lehendabizi" pentsatzera iritxi-ko dira, ta partidua beste zerbait irixteko bidea dela ahazteko arriskuan jarriko dira. Garai berrietan partidu batek sentidurik ez badu, ill eta berri batzuei sortzea ematea komeniko balitz ere, hauek, burokraziakoak, izango lirake partiduaren abertzale-tasunaren sua astinduko lutekenak.

Beraz, tradizioa duten partiduak bere biziko atsa dute bi-zitzen segi ahal izateko garai desberdin eta astinduenetakoetan. Bere funtziotik eta eginkizunetik aterata bederik ere, bere bu-ruaren iraupenean sentidu bat arkitzen dute eta, besterik ez bada ere, horregatik burruka egiten jarraitzen dute.

Europa'ko zenbait ezkertiar partiduak zahartzen dijoaz, mi-litante gazteak gero ta gutxiago izaterakoan, partidua osatzen dutenak gero ta zaharragoak diralako. Partiduak eraberritu behar dirala, gazteei sarrera eman behar zaiela ta leku egin behar zaiela, politikalarien topiko batean biurtu da, itzetik ortze-ra darabilkiten esate batean.

Ba dugu hemen ezkertiar "berrientzat" asiera bat. Izan ere, "berria" zerbait zaharragoaren relazioan izango da, noski. Ta lehengoak ere ezkertiarak dirala esaten jarraitzen duten ezkerero, hoiekin ados ez daudenak, eta zaharragoak izaterakoan, hauek bere burua berritaz jo behar. Beraz "ezkertiar berriak" bere sortze/ik "ezkertiar zaharren" kondensazio bat daramakite, diferentziatu nahiean sortzen da mintzamolde berri hau.

ezkertiar-eskuindar binomioa

Aurrera jarraitu baiño lehenago, "ezkertiar" itza era berdiñean prestijioz betea ta desprestijiatua dagoela esan behar dut.

Batetik, zenbaiten iritzian, politikagintzan "ezker-eskuindar" bikotea XIX'gn. gizaldiko moldeetan jaioa da ta gaur egunean sentidurik ez du. Beraz, politikan, bat eskuindar edo ezkertiar dela esatea superatu behar den gauza da. Hori, modatik pasatako mintzamoldeekin itzegitea da. Ez dago eskubirik, ez ezkerrik, eta baldin badago ere berdin da, ez baidira ezertan berezitzen, azkenean, errealidadean, berdin jokatzeko dutelako, asmo ta egite berdiñak dituztelako.

Ba dira gertaerak eta jokabideak honela mintzatzeko eskubidea eman lezatekenak. Horrelako esanak darabilzkitenak nortzuek diran aztertzen badugu, ordea, beren xedeetarako komeni zaien eran darabilzkitela gertaera hoiek, ikusiko dugu. Konserbadore kutsuko teknokratak dira honela mintzatzeko diranak. Hauen-tzat, gehiena balio duena erabat efektiboa izatea da, ekonomian, legedian, edukazioan, behar bezela zuzendu ta gobernatzea. Bere egitearen xedea bezela hau proposatzerakoan, ordea, ez dute, lehendabiziko ekinaldi batean gutxienez, gizartearen moldeen prolema planteatzen. Horregatik, hauen asmoa molde hoiek ondo funtzionatzea den ezker, dira konserbadoreak, molde hoiek kuestioan ez jartzerakoan ontzat artuko balituzteke bezela delako. Funtzionamentu ona ta efektiboa hoi prolematika izaterakoan, ezkertiar eta eskuindarren arteko diferentziak ez zaizkie interesatzen eta politika den guztiarentzat mesfidantza aundia dute. Denbora ta indarra alperrik galtzea iruditzen zaie eta politikalarien solasak berritsuketak besterik ez. Hauen-gandik, bere kritika onartzerik ez badugu ere, ezin ditzakegu esan guztiak baztertu ta teknokraten kontra esaten diranen topikoetan erori. Arrazoi zuen Geroge Vedel, Frantzia'ko politikologorik onenetakoak "le technocrate c'est le technicien vu par un poujadiste" zio-nean.

Ala ere, erabat serioak ez dira bere planteamentuak egiterakoan. Efektibitatea derrigorrezkoa da, baiñan medio bat besterik ez da, ez xede bat. Politikariak askotan berritsuak eta personalidaderik gabekoak izan dirala jakiteak ez du eskubiderik ematen

estraiña politika ill dela ta gero ill behar duela esateko. Gaiñera, legezko nahikunde honen azpian bidezko ez diran amaika interes eta petralkeri estaltzen dira. Konserbadore kutsuko tekniko hauek dakarkiten baiño bortitzagoa da, ezkerre definitu ezin ditekenez zerbait dela, dion argumentoa. Zer da ezkertiarra izatea? Moldeak aldatu nahi izatea? Orduan, sozialista estatu bateko moldeak aldatu nahi dituna ezkertiarra da. Molde hauek ezkerretik edo eskubitik aldatu ditezke, ordea. Ezkerretik, sozialismoa jatorragoa egin nahiean; eskubitik, kapitalismoa berpiztu nahiean. Besterik gabe, moldeak aldatu nahi izatea ez dela nahiko, argi dago. Justiziaren alde egotea, aberatsen aurka ta behartsuen alde, kolonialismoaren aurka ta askatasunaren alde etab.? Baiñan, izenez gutxienez, nork ez du bere burua definizio hortan sartuko? Eta honela milla saiaketa egin arren, beñere ez giñake iritxiko ezkerren definizio zeatz batera, inguratzerak bakarrik gehiean. Ez litzake, gaiñera, onegia izango ezkertiarren definizio astrato batekin lanean astea. Herri ta giro bakoitzean "ezkertiar" izenpean zer ententitzen den aztertzen badugu eta hoietatik zera jeneral batzuek ateratzen baldin baditugu, obeto jokatu dugu, eta jatorrago. Bestaldetik, nola ez ahaztu gaur egunean danak bere burua ezkertiarzat daukatela? Inork ez du ezagutu nahi eskuindarra danik. Danak ezkertiarrek dirala diote, ezkertiar utsak ez baldin badira ere erdi ezkerrekoak dirala diote. Ezkertiarra izatea, sozialista izatea bezela, modan dagoen gauza da beraz. Ba dira horregatik orijinalak, indibidualistak izan nahiean, ezkertiar izatea balio eskasean daukatenak.

Baiñan, zertarako jarraitu itzen kontua besterik ez den eztabaida hontan? *J. M. Paupert* idazleak benetakako politika ta politika formalaren artean darabilkin distinzioa puntu honetan egokia iruditzen zait. Hone-lak dio: "politika formalaren soroak marxisten "infra-estruktura" delakoaren muga antzekoak ditu, hau da, ekonomiarena *representazioko xistima* bezela. Agintaren moduak, xistimak, administrazioako erak, reji-

menak eta legeak sartzen dira bere baitan. Baiñan, bestaldetik, benetako politikaren mamian sartzerakoan (Marx'ek "estruktura" txartelpean jartzen zuen lekuan, ekonomia errealdade bezela) gauza "besterik da" (2).

Orain arteko solasetik ondorio hauek aitatu ditza-gun: ezkerre errealdade bat da; errealdade honek nahiko izen du politikagintzan politikolari gehienak bere burua ezkertiar izenarekin bataiatzeko; horrexegatik, ezkertiar izatea topikoan biurtu delako, zenbaitentzat kasikan desprezio egitea delako. Ezkertiarren izatea definitzea oso zaila da. Errezena deskripzio bat egitea da. Justiziaren alde, behartsuaren alde, aberatsen kontra, berdintasunaren alde, kolonialismoaren kontra etab., etab. esan diteke dirala ezkerren zera batzuek. Hoiiek danak, ordea, bi arpegi edo gehiago dituzte, zail baida, itzez gutxienean, deskripzio hortan bere burua aitatuta ikusten ez duenik arkitzea. Horregatik, politika formaletik aterata, benetako politika baten alorrean jokatu dezagun gure azterketan. Itzak alde batera utzita, egiteetara iritxi gaitezten.

proletariutza

Frantzia'ko Erreboluzioaren ondorean liberalak osatzen zuten ezkerre, baiñan 1848'gna. ezkeroztik, liberalak politika eskubiratzen joango dira, gaur egunean partidu eskuindarrenetako izatera irixte-raiño. Ordu ezkeroztik ezkertiarrek ezkertiar izango dira proletari-utzarenganako relazioan. Lehendabizi, sozialista utopikoak eta marxismoaren aurrekoak burgesi liberalarengandik langillengana urbil-tzen joango dira ta, gero, Marx'ek sozialismoa historiaren eboluzioan dagoela, ta hori burgesia desegiterakoan langilleak bakarrik egin lezatekela esango du. Sozialismoa izango da, gaiñera, mundua ta gizarte benetan gizontiarra egiteko modu bakarra. Ordu ezkeroz-tik, proletariutzaren egin-behar hau asmatu zen ezkeroztik, ezkertia-rrak proletariutzari buruz definituko dira. Asieran, proletarioen nazi-o- artekoan, marxista ta anarkisten arteko eztabaidak eta dibisioak

(2) J. M. Pauptert, "Pour une politique evangelique". Ed. Edouard Privat. Toulouse; españolez ber-idatzia ta Barcelona'n Nova Terra etxean argitaratua 1967'gn. Liburuaren 74'gn. orrian.

izango dira. Bi joera hoiak, ordea, erreboluziogintza artzen dute bere eginkizunik aundiena bezela. Proletariutzaren barruan ezin esan ahal izango da, anarkistak edo marxistak, zeintzuek dauden ezkerre-rago. Denborarekin, marxismoa aterako da proletariutzaren barruan garaille. Ala ere, anarkismoaren zera ta joera batzuek proletariutza-ren baitan bizirik jarraituko dute.

Bañan 1917'gn. Sobietikoen Batasuna sortzen den ezkeroztik, so-zialista ta komunisten arteko dibisio latza ta garratza jaioko da. Reformazaleak batzuek, erreboluziogilleak besteak. Noizean bein, egite batzuetarako elkartuko dira batzuetan, esate baterako, 1936'gnko. elekzioak irabazteko. Proletariutzaren batasuna, sozialismoa jasotze-ko derrigorrezkoa ta langilleei burrukarako mistika bat ematen diena, deseginda bezela ibilliko da, iritxi beharreko xede batean biurtuko da. Sozialismoak, sozial-demokrata partiduak osatuta, burgesiaren partiduekin Herrien gobernutan bein baiño gehiagotan parte artuko du. Reforma batzuek, eta langilleentzat ontasun aundiak ekarriko dituztenak, erdietsiko dituzte, baiñan luzarora proletariutza menpera-tzeko ta ixiltzeko medio batean biurtuko dira. Beraz, denboraren poderioan, erdiratzen, eskubiratzen joango da. Erdiratzen, zahartzen eta aultzen. Sozial-demokrata partiduen sustraia ere, zenbait Herrie-tan (3), aldatzen joango da. Langille burrukalariak ez dute bere menpean asko iraungo. 1945'gn. gudu ostean komunismoaren aldean erabat alduak aterako dira. Beste zenbait herrialdetan berriz, batez ere komunismoak indar aundia artu ez duen alderdian, partidu aundi bat izatera iritxiko da. Partidu aundi ta serio bat. Seriotasuna burgesiak entenditzen duen moduan izanik, Herri hoietan beste ezkertiar indarrak ez dagoelako, sozial-demokrata hoiak osatzen dute Herri hoietako ezkertiar indarra, nolabaitekoa gutxienean. Ala ere, partidu hoietan izaten da, edo ezkertiar egal bat, edo estudianteak edo langille talde burrukalari batek osatutako sindikato autonomo ta ez-kertiar baten ziria.

Bestaldetik, gudu ostean, ezkertiar asmoekin, Europa'ko zenbait Herrietan, kristau demokrazia piztu edo berpiztu zen. Laister iku-siko zen, ordea, Mounier pentsalari trebeak esan zuen bezela, "kris-tau demokrazia katolikoen usurako radikalismo bat besterik ez zela". Laister erdiratu ta eskubiratu zen partidu hau herrialde gehienetan. Bere baitan arkitzen ziran benetako ezkertiar burrukalari gehienak beste bideen billa aldegin zuten.

(3) Sozial-demokrati hontaz itzegiterakoan batez ere gure inguruko Herrie-tan pentsatuta egiten dut. Hoiak baldira zenbait puntuetan gure prolemekin zer-ikusi aundiena dutenak.

ertzekoen bilduma

Lehen aitatu ditugun zera guzti hoietatik gainera, komunismoa stalinismoaren menpean bizi izan delako, ezkertiarrentzat prolema bereziak planteatu ditu. Alde batetik, troskysmoak zartada garratzak utzi zituen komunismoan. Bestetik, mundu guztiaren neurrian, oso zailla da proletariutzaren burruka ta komunismoaren burruka zenbait kasuetan diferentziaztea. Bere asmatze ta oker jokatzeko guztiakin komunismoaren burrukak langilleen burrukak izan dira, ta aldrebes ere egia izan da neurri aundi batean. Hortikan jaiotzen da beste puntu batean aztertuko dugun ezkertiar guztiak komunismoari buruz definitzeko duen premia. Gaur egunean ere, ezkertiarra nor den jakiteko, kriteriorik onenetakoa komunismoarekin zer artu-eman dituen jakitea da. Erabat antikomunista itxua baldin bada, zailla izango da hori benetakoa ezkertiarra izatea.

Sozial-demokrazia eskubiratu edo erdiratzera-koan partiduaren ertzean gelditu diranak izan dirala esan dugu. Sozialista ezkertiarrek izango dira. Hauek, askotan, partiduaren barrutik egingo dute lana, bere rebeldia adieraziaz, besteetan partidutik atera ta partidu txikiagoei emango die sortzea.

Politikara kristau demokraziaren bitartez esnatu ziranak, baiñan honen baitan sozialista ta ezkertiar partidu baterako girorik arkitu ez zutenak, lan politikoa egiteko nun eta zertan bildu arkitu nahiean ibilliko dira.

Komunistak izanik stalinismoaren garaietan gertatutakoetatik, edo Budapest'en 1956'gn, gertatutakoetatik partidutik iges egin beharrean arkitu diranak, lehengoan preokupazio berdintsu xamarrekin egongo dira bere lan politikorako, zeinekin eta zer organizaziotan bildu jakiteko.

Izango dira, baita ere, asiera batean, apolitikoak ziran sindikalistak, baiñan bere burrukak gogortzen

joan diran neurrian politikaren alorrean sartzeko premia dagoela konturatutakoak. Hauek lehengo partidueta ez dute ez lekurik eta ez girorik arkituko. Hauek ere zerbait berriaren bila ibilliko dira.

Baita ere, ba dira eginkizun konkretu batzuetatik bakarrik asiko diranak burrukan (Vietnam'eko guduak, belizen eskubideak etab.), baiñan bere burruka sakontzen joango den neurrian politikara irixteko premia ikusten dutenak.

Guzti hoiekin batera lehengo partidu zaharretan, hauek erabat aulduta ta burokratizatuta daudelako, politikarako bide berrien bila dabiltzan gazte guztiak jartzen baditugu, ezkertiar berriak zer famili ta giro politikoetatik ateratakoak diran argi dago. Horregatik, askotan, eta azalezko analisis bat egiterakoan, ezkertiar berriak antolatuko dituzten organizazioak ertzeko ta baztertutako jendearenak dirala dirudite. Ta puntu hau oso inportantea da ezkertiar hauen giroa behar bezela entenditzeko.

(Jarraitzekotan)

euskal-arteaz

ayalde

Gizaldi onen leenengo urteetan Artearen euskal-eskola maitzen ari zan. Antziñan, artista on eta asko izan degu, eskultore ta irudigilleak (imajine-roak geienak), eta pintore batzuek, *Iriarte-ta*, *Etxabe-ta*, baiña denak kanpoko eskoleri lotuta.

Ogei garren gizaldi ontan, ordea, gure artistak elkartuta, Euskal-erri-ko oitura, paisaje eta erriko jendea gaitzat artu zituzten, eta orduko estilo berriekin euskal-kutsuzko obrak sortzen asi ziran.

Antonio Maria Lekuona pintorea izan genuen aintzindari,

gaiaren aldetik beintzat. Gero, Guiard'ek eta Regoyos'ek impresionismoaren "aize freskua" ekarri ziguten Europa-tik. Eta gero, Etxebarria'k, Arteta'k eta Vazquez-Diaz'ek euskal-eskolaren oiñarriak jarri zituzten, Paris-en bereganatutako estilo berrien bidez, fauvisme, expresionisme, kubismoa eta olakoetaz.

Euskal-eskola gazte ura, maitu baiña leen, ondamendira joan zitzaigun matxinadaren leenengo tiroekin.

Gero utsune beltz eta luze xamar bat izan degu. Gure artistak berriz ere kanpoko eskoleri itsatsiak egon dire, batez

ere Madril-goari; baiñan azken urte auetan leengo gurea berpiztutzeko gogoa nabaitzen da artista gazteen artean.

Orain, Donostia-n, bi talde sortu dira: UR-taldea eta GAUR-taldea. UR-taldekoak lau pintore ditugu. *Grazenea*, ondarrabitarra, *Arozena*, donostiarra, *Tapia*, agiñatarra, eta *Bizkarrondo*, donostiarra (au Bilitx bertsolariaren birrilloba).

Lau pintore auek paisaje-egilleak dira, eta estilo abstraktoetatik alderaturik, realidadearen ondoan dabilta.

GAUR-tarrak, ordea, abstrakto utsak ditugu. Zortzi dira; iru eskultore: *Oteiza*, oriotarra, *Txillida*, donostiarra, eta *Mendiburu*, ondarrabitarra. Eta bost pintore: *Amable*, Leon'darra, *Zumeta*, usurbildarra, *Ruiz Balerdi*, donostiarra, *Sistiaga*, ondarrabitarra, eta *Basterretxea*, bermeotarra. Geienak, ikusten denez, kostaldekoak, itxastarrak.

Jorge de Oteiza nork ez du ezagutzen? Artista zar-trebe, sari internazionalen irabazle, eskultore bikain, idazle zorrotz, izlari sutsu, artista gazteen gidari, lagun zintzoa. Azken urteetan Oteiza'k kezka aundia du, Arantzazu-Santutegi berri-rako bere lanaren debekatzeagatik. Baiñan, aditu dedanez, ba du baimena ango lanak ja-

rraitzeko, eta laister igoko omen da berriz ere Aloña-mendi alde-ra bere apostolu irikiari erremate ematera. Ala dedilla.

Eduardo Txillida da munduan euskal artista ezagunena gaurko egunetan. Sari internazional asko ditu. Bein, Txillida'ri galdegin nion bere artea, bere pentsamendua, nolakoa zen.

—“Ni ez naiz abstraktoa —erantzun zidan—. Nik Natura ez kopiatzearren, Naturaren lanak eta berak dituen sortzeko legeak estudiantzen ditut. Eta gero, Naturak bezela egiten ditut nere obrak”.

Auxe da itz gutxiekin, eta oker ez banago, Txillida'ren joera. Esango nuke, Txillida'k ez duela Natura kopiatzen, baizik-eta Naturari kopiatzen diola. Kopiatzen dio, alegia, bere sistema, bere sortzeko manera.

Adibide ximple bat jarri dezagun:

Eskultore batek bere jardineko arbol bat ez du kopiatu nai. Arbol ori ondo egiña dagola-ta, zertarako beste gezurrezko bat egin orren antzera? Baiñan arbol ori nola azi dan, adarrak nola bota dituen, enborazala nola artezitu zaion, zer fisika-legeak ibilli diran or bertarteko, ori dena, ta beste gauzak ere, ondo estudiatu ditu es-

kultoreak. Ikasi duenakin jar-
tzen da lanean. Bere lantegitik
eskultura bat ateratzen da. Ez

da arbol bat, ez du antzik ere,
baiñan arbol-sortzearen legeen
bidez egindako eskultura da.

Beste artistetaz ere pozik itzegingo nuke emen, danak merezi bai dute; esate baterako, Basterretxea, nere lagun maite, ta pintore ta eskultore trebe orretaz; Mendiburu'z, eta besteetaz ere, baiñan ez dut luzatu nai lantxo au.

Esan dezagun bakarrik GAUR-taldearen antzera besteak ere sortu dirala euskal-probintzietan: EMEN, ORAIN, DENOK, eta ola. Talde guztien asmoa bat bakarra da: leengo Artearen euskal-eskola berpiztutzea. Intenzio ona da, asmo txalogarria, bai, baiñan ori lortzea zailla izango da. Abstrakto-tendentziak ezpaitu balio Erri baten Artea besteenatik bereizteko.

Itzaldi batean nik esan nuen: "Euskal-eskola auxe izan da: Paris-en ikasitako estilo modernu berriakin, eta gaiaz gure paisajea eta jendea arturik, euskal artistak egindako obra".

Artista abstraktoeri, paisaje eta figurak baztertu ondoren, zer gelditzen zaie? GAUR-tarrak eta euskal artista abstrakto guztiak, kolore eta formak soilki dituzte euskal nortasuna agertzeko. Baiñan gure zero eta lur-koloreak edonun billatzen dira, Kantauri-ertz osoan esate baterako, eta emengo formak (industri eta artesaniazkoak?) nunai arki ditezke.

Orregatik, nere ustez, leengo euskal-eskola berpiztutzeko, edo beste berri bat sortzeko, UR-tarrak zuzenago da-biltza, GAUR-tarrak baiño.

gaurko alemaniar lirikaz

jose azurmendi

ALEMANIA-ko poesia berriaz orain gutxi dala mintzatua naiz nunbait. Bidenabar bakarrik, eta oso atalka, besterik ezifian. Orduan erabaki nuen gai honi gertuagotik berriro lotzea, —ahal bezain azkar— zerbait zeatzago aztertzeo ta han esanak argitu ezin banitu ere, zerbait osatzeko asmotan beifnepein.

Illundi bat iruditzen zait oraindik gaurko alemaniar poesia, nahaste bat. Konsolagarri zait, halare, nire inpresio hau kritiko gehienek konpartitzen dutela baieztatu ahal izatea. Zera esateraifio iritxi baita norbait: alegia, poesia berri bakoitzak eskola berria sortzen-edo duela, era berriak estrefinatzen datorrela. Bixtan dago, ba, bide urratzen dabilkigula poesia hemen ere beste nunahi bezalaxe. Ulertu ahal izateko klasifikatzea prexixo duenari biurri egingo zaio gaurko poesiaren nundik norakoak garbitzea: absurdo, zoro, eragabe, edozer gauza.

Begiratu labur bat emango diogu, halare.

oharrak

euskal poesia3

• 1945

NAZISMOAK ikaragarritzko etendura signifikatzen du Alemania-ko poesiarentzat. Nazialdi bezperan, hain zuzen, ari zan alemaniar poesia, jeneralean mundu osokoa bezalaxe, sukalde usaiko ispirazio ta tematikaren mugak ausirik, poesia unibersalago baten sortzeko alegiten. Hasia zan munduko seme sentitzen. Mundu Gerrak lurra jan zion, ordea, joera honi, eta orain hasi zaigu berriro asmo zahar alferrikalduen berpiztu nahirikan. Hau ez da, noski, Alemania-n bakarrik gertatzen. Zer da, bestela, Evtutxenko bat? Ez dute zenbait guretarrek poeta bezala ulertu nahiko eta gehienek gustorago onartzen dute egunkariek haren jokaerari esplotatzen dioten esanahi politikoa. Zori bera tokatu zitzaion lehenago Pasternak-i. Errusia-n bezalaxe USA-n ere ta Ingalterra-n, Alemania-n, Ungaria-n, ez balira bezala nunahi poetak deskontentu, frontera guztien —lurreko, ideologiko, ekonomiko— karzeletatik libre mifez.

Atzerriko aide ta iturrietatik aberastu nahi zuen Hitler aurreko poesiak. Posibilidadetan zoragarri aberats agiri zaigu gerra bitarte hau. Dana birrinduko zuen Nazismoak. Alemaniak poetak Paris-en, USA-n, Suede-n poesiagintzan jarraituko zuten (eta hoen artean judeguen emaitza ez da poesia alemaniarrarentzat nolanhikoa izan), baiña aberrian bertan eten egin zan tradizioa. Eten bazan ere, ordea, poesia beharra indartzenago joan zan nazismo ta gerra garaian. Frentean zeuden ikasleen poesia gazteak eragin nabaria izan du gerora.

Norakoaren eta zeren galderak nagusitu ziran gerra ondoan. Zer da poesia, nora doa, zein bere egitekoa? Hizkuntza ta poesia ta dana berritu behar zan. Nola, ordea? Galderak ez baitira eskoletako tribunaletan erabakitzeakoak, ezta "Marburg-eko Hitzaldiak" garbitzeakoak ere (nahiz eta Gottfried BENN-en irakasaldi hau—**Probleme der Lyrik**—alemaniar poeta gazteen eskuliburu eta Ars Poetica billakatu den), ezpada egñiaz erabakitzen dana, oraindik galderetan dabiltzala esan ditek. Ez baita izan ere, poesia definitzen.

* * *

POESIA bat ez da bitral bat, entzun oi da gaur poeta edo poesiazeleen artean (nahiz eta A.A. SCHOLL-en poesia batean irakur ditek), poesia dala "sustantibozko eliz bitrala"). Eta eguneroko saio berriek poesia berria bera ere, xeble xamar bederik, bitan zatitu digute. **Poesia berria** eta **poesia berriena** bereizten dituzte hemen. Bereizkuntza egñia dago egon, eta onartua ere baietz esango nuke; bereizkuntza horren mamia zein dan, ordea, ez ei daki inork zehatzik. Bitartean, gerra osteko poesiaren antologiak barrabaskeria ugaritzen ari dira eta berebat ba da makña bat liburu ta konfesio, poetek beren poesia deritzatena agertuz, beren poesiak agertzen, bide, metodo, teknika eta iturri azaltzen dizkigutenak.

Amerika-n estadistikak eta inkestak egin omen dira lirikoen artean: nola poesiagaia manejatzen eta eskuerabiltzen duten, nori nahi dioten hitzegin, zer esan. Parregarria izango da, agian, baiña ez kritikoe edo ez dakit nork poetari bidea ta egitekoa markatu nahi izatea baiño parregarriago. (Edo negargarriago?). Estadistiken eta gaurkotasunaren izen sakratuan poesiaren monokultiboa nagusierazi nahiko ligukete, apika, konsumitzailearen gustoak errege. Atzo gortean kantatzen zuten poeta-edo ziralakoak, erregearen digestioa gozatzeko. Gaur herriari "eszitantek" eman behar zaizkiola erabaki nahi digute kritikoe eta estadistikek. Baiña horretarako poetak ez baiño tanbor jotzaileak asmatu zituen Almanzor-ek!

Alemania-n ere egin dira, ba, holako galdekizun bildumak. Bilduma hoetatik puntu bat nabarmentzen du irakurmenak, lehenik: poeta gehienek **inspirazioaren, etorriaren, jainkoengandiko doaiaren** kontra garratz protestatzen dute. Poeta, izan ere, jaiotzen beharko da, agian, baiña poesia ez da jaiotzen. Nire gustorako, alde honetatik zerbait falta zaio Txillardegi-ren saio bestela jatorrari, alegia, "Euskaldun txapeldunei bi hitz" (Huntaz eta Hartaz).

Poeta alemaniar gazteen **etorriarekiko** kontrastetasun honek G. BENN-engan du iturburua: "Jalo, poesia oso gutxitan jaiotzen da —poesia egin egiten da". Hitz joku soilla dirudien erasi honen mamia korapillatuegia da hemen azter dezagun, nire atal honen asmoa informatzekoa baita aurrenik. Bego, halare: gaurko poetek, alemaniarrek, poesia eskulanarekin berdintzen dute, poesiagintza artesia bat da.

Doaiez eta etorriaz baiño sarritanago mintzatzen zaizkizu poetaok, orratio, hitz-argintza (Johannes POETHEN), Hitzarekin eraikitako **forma tektonikoez** (A. A. SCHOLL), **lantegi lanaz** (Karl SCHWEDHELM), sportmutillen **eroapenaz, laboriotario lanaz** (H. E. HOLTHUSEN), etc. Wolfgang WEYRAUCH-ek: "nire poesia nire labana da".

• • *magikoak*

ESKOLA naturmagikoa deritzana Oskar LOERKE-k abiatu edo behintzat bildu zuen. Izen honek berak duda handirik uzten ez duenez, eskola honen hasiera ez da gerra ondoko agerpena. Loerke 1941 hil zan. Ez ordea joera, ez zan hil, izen on eta indar galantarekin bizi zaigu. Hoen esperimentalismoa —esango dut gutxi gora beheraka— tradizioaren bidetik doa gehienik. Hoena eboluzioa dala esango genuke, eta erreboluzioa geroago aipatuko ditugunena. Biak noski beharrezko, ze ez dakigu nori zor izango dion gehiago geroak.

Oskar LOERKE espresionismotik adartua da, eskola horren sujetibismoa, halare, berealakoan aizatu zuen. Bere poesian poetaren Ni-a kasi erabat galtzeraino xehatzen doa. Loerke-ren asmoan, lirikaren intimitasuna, barnetasuna ez da sujetoaren abotsak agertzekoa, baizik honek gauzari utzi behar dio bere abotsa naturaltasunez libre agertzen. Naturalezari entzun egin behar zaio, entzumen berezi batek (eta ikusmen,

sentimen...) burutzen du poeta. Galduta-edo gelditzen da Ni-a.

Dardaraz dago zumarretik zintzilika
tristuraren uzta.
Kementsua, sustraietatik gora igotzen
da betikotasun sakona.

Biurritzen da
asketatik, eskuikukari,
lanbro ustela eta goratzen.
Grisa balurrik dator zuloetatik
—irabazten du eta irabazten— etorri.

Negarrera jarri ote ditu
Horizonteak bere arpa negargilleak?
Lurrak, oi, ditu laifio mataza
biurtu ildo sofrituak.

(Sommernachts über Land)

Poesia geldia da, barea, denboragabea, mogimendu apenas baterekoa, patxadatsua. Poetak bere Ni-a zabaldu orde z nahiago du naturalezari agertzen utzi. Eskapismo akusazioa bola zaio eskola honi, oi danez... Kritikoez dagoeneko ados direla dirudit halare: poesia honek, eskapismo hala ez, ez du ameskeriarekin eta Arkadia-ra itzultzearekin zerikusirik. Munduaren aurrean kabitzen diran milla posturatako bat da, beste edozein bezain jator. Naturaleza, (eta erants zaiozu, irakurle, kondaira) gizonarekiko batere begirunerik gabe doa aurrera, bere ederrean arto eta indarrean zital. Orduan, protestatzea natural dan bezala da natural mutu gelditzea, gu-lasunaren eskasia aitorturik naturalezarekin bategitea, hari hitzegiten uztea, geure griñak eraztea, Naturelezari entzun eta erantzun bera ematea.

Poesia honeri etzaio ikusi nahi duenarentzako trajeriarik falta, trajeria nahi bada. Etzaio sendotasunik, pakerik, segurantziazirik falta, hoek nahi izan ezkeru. Hauxe azaltzen digu mitologia-ko gaiak behin eta berriro, gisa berri eta enfoke

berrietan erabiltzeko duen jaiarak ere.

* * *

BA DITU kontrarioak, ez bigunak. Honela gaitzerizten du Heinz PIONTEK poeta gazteak: "Naturlirika deituak ere, extu hartu ezkerro, ez du azibiderako gaitasunik honezkero. Ez da kanttaxar xentimental atzeratu hutsa besterik. Betiko geldituko dira bere gaiak, noski, mundua mundu dan artean. Baiña begi fresko berriekin ikusiak eta konzientzia gazteago batekin jasoak izan beharko dute".

Geroak esan beharko du hain errez agortzekoa dan hala ez. Gaurkoz behintzat bizi da.

* * *

LOERKE-ren ondoan aipa ditzagun batez ere haren adiskide Wilhelm LEHMANN eta Elisabet LANGGASER. Poesia prolematsua, mindua, ausia da andre honena.

Günther EICH-en poesian berriro agertzen digu Ni-tasunak aurpegia, polliki polliki. EICH gerra aurrean hasi zan idazten, baiña nik aurkitu ahal izan dudanetik, Nazismo garaian poesia egiteari utzi zion. Gaur izen errespetatu baten jabe da. Bere poesian norbakoiltzaren sentimena ta Naturalezaren igidura elkarrekin bigun bigun nahasita agiri dira. Bertso goxo bat idazten du, xuabea oso (itzulpenak jasoko ez duena!). Günther EICH "eguneroko gauzen eta bizitzaren" poeta da.

Gabez.

(Nachts).

Gabez entzun, sekula entzun ez zana:
Alah-ren ehungarren izena,
gehiago idatzi ez zan Paukenton,
Mozart hil zanean,
amasabelean entzundako elkarriketak.

Radiokomeria (Hörspiel) arte era asmaberriak biurtu du batezerenik Alemania-n G. Eich ezagun (Amesak, Viterbo-ko neskatxa, Metroa, Euriaren mezuak).

"Idaztearen bitartez hartzen dute niretzat gauzak gauza-fasuna —esaten digu Eich-ek. —Ni idazlea naiz, hau ez baita

ofizio hutsa, mundua hitz bezala ulertzeko erabakia baizik". Errealidade lauaren ezinezagunean gida gaitzaten dira poesiak, itsasoan boiak bezala. Poesia definizio bat da, eta definitzearen onak hala txarrak erabakitzen du poesiaren kalitatea. Gaiñuntzekoa nahi beste interesgarri gerta liteke zozio-logiarentzat, edo politikoeantzat, baiña ez da poesia (Literatur u. Wirklichkeit).

Sail honetan sartu oi da Karl KROLOW ere. KROLOW-ek asko itzuli du beste hizkuntzetatik, itzulpenen bidez alemaniar poesia gaztearentzat posibilitade —poesibilitade— ustegabeoak aurkituz.

KROLOW berriz "realismoaren" kontrarioa dugu. Realismoa moda da, tonu onekoa, eta modako esaren jostura jolasezkoa. Snobkeria eta errealidadea dan bezalakoa onartzeko ta espresatzeko bildur diximulatua, eta —batez ere— errealidadea gure hitza ta esaera baiña askoz gehiago izango dala beti aitortu ez nahia.

Halare, realismoa ondo ulertzen bada, berarentzat nahi luke K. KROLOW-ek. Bere musak, zerbeza eta agoardientea.

Poesia (bat) osoa, borobilla, bere baitan osatua, primerako produkto bezain poesia txatala da. "Poésie ininterrompue" nahi luke: alegia, poesia baten azkeneko aria libre utzi ta handik abiatu beharko omen litzake urrengoa, iturri etengabea. Hauxe litzake poesia esperimentalena. Gaiñuntzekoz, metafora du KROLOW-ek atsegäinen eta hura omen da poesian garrantzitsuena. "Metaforak aktibatzen du poesia".

KROLOW-en poesia kontorno gutxi baiña xorrotzekoa izateak eta deskuidoan bezala ereiten dituen zentzumengai txinpartek ezaguerazten dute eta beste edozeinarenetik nortzen.

Ez pentsa gaurraz zeharo desinteresatua danik, halare. Politika goraberen absurdoak, gizarte zibilizatu omenaren kraskagarria, giza hartuemanen aldaizeak, irabazten joan dira here poesian.

• • • poesia zoziala

IZEN ospetsuekin kontaktzen du eskola edo joera naturmagikoak. Ez dago ohar beharrik, noski, ez naizela izen biltzen arduratu. Notaon

informazio asmoari jarraiki, apropos uzten dut BRECHT bat, esate baterako, alde batera.

Geldi bedi aurrera baiño lehenago, halare, garbi, egin dudana zati-biko banaketa hau zeharo artifiziala dala, erreztasunerako bakarrik on. Gaurko poeta hemendarren artean, bestela, ez da holakorik permiti lezaigukean paretasunik agiri. Ez beren artean, ez —agian— ba-koitzaeren kreazioaren barnean.

Banaketa honek, gaiñera, gaiari jaramon gehiago egiten dio formari baiño, poesiari —arteari— gagozkiolarik disparate hutsa litza-keana. Oteiza ta edozein argin, Txillida ta edozein erramintari. Zuloa-ga ta igeltsero edozein elkarrekin klasifikatzea bezalatsu. Forma baita artearen espezifikoa (1).

* * *

Ez ditu izen kaxkarragoak poesia zozialak. Izen haundiak, estilo desberdiñak. Estilo estilizatu txoliñak, zarrapastrero mordoilloak, hitz teknikoz poesia bete nahi izan zutenena, barrokoa bera ere, surrealismoa, BENN-en karrusel estiloa... Baiña bizitzaren gauzak! Benn-en poesia zozialean agiri dan, edo CELANen poema "Die Todesfuge" mundu osoan ezagunaren espresio era leteña modukoak nun eta... Rilke-ren **Karussell**-en daukate iturburua! Aragon eta Otero San Juan de la Cruz-engana itzuliko dira, baiña gaurko gazteria dan Inkisitore Haundiak berriro San Juan-en bat agertuko balitzakigu harri-ka desterratuko liguke.

BENN-en eragiña apartekoa izan da poesia berrian. Bere olerkiarena, dudarik gabe, baiña bereziki haren "Marburg-eko Hitzaldia-rena" (1951) erabakigarria gertatu da. BENN-ek predikatzen zuen "realismo kritikoa" gerora Ingalaterra ta Amerika-ko lirikak indarrago-tu ta aberatsagotu du, ta poesia bikaiñarekin bategiñik, egiteko zozial bizia irabazi du lirikak.

Poesia honi zerion nihilismoak eta berritasunak bere okerra ere izan du, eta plagioa jeneralizatzea ez da txikiena izan. Bestetik, absurdukeriak, fantasiaren zoroaldiak, kapritxo guztiak konsagratu nahi izan dira berrienaren edo protestaren izenean. (Esperimentalismoak, berebat, apenas ezagutu du neurririk).

Hizkuntzaaren aldetik, nire iritzirako, joera berriok poesiari ekarri dioten onurarik aberatsenetako bat metrika tradiziozkoaren akabatzea izan da (2) eta honekin bateginda zegoen hizkuntza postizo akademikoa birrindurik berriago, gazteago baten muntatzea. Herriaren

hizkuntza korrientea landu dizute ta edertu. Eguneroko bizitzako irudi ta esaerek ere sujestio plastiko bixi bixia eman diote poesia honi eta batez ere espresio airosago, libreago bat irabazi ahal izan du lirikak.

* * *

Aipa ditzagun hemen poesia zozialekoen artean Werner RIEGEL eta Peter RÜHM-KORFF, 1925 eta 1929 jaiok. Lehenengoa goizik hil zan eta bigarrenak barrokorantza jodu. Batak hala besteak signifikazio dudagarria.

*Gure lepo salbatuekin
lintxatu gabeak oraindik
gabiltz Babel-dik Belsen-era
gaixo eta fenol kolore.*

(Heisse Lyrik).

*Maite dut herri jenerala
ta hargandik urrun gelditzen naiz...*

*Zer egiten du aberri bakar batek
hainbeste illun mendi bakarrik?
Pentsamentu probisioekin
denpora oraindik txarragoetarako
defenditzen dut burua nik.*

(Heinrich Heine Gedenk-Lied)

* * *

JOERA hau gaiaren aldetik izentatu nahi izan dut, errezago gerta dedin. Euskaldun irakurleak bereala igarriko baitu nola moduzkoak izan ditezkean poetaok, poesia zozialeko baderizkiet. Faborez eskatu nahi nioke irakurleari, halare, poetaoekiko iritzia borobiltzeko ahal bezanbat euskal poesiaren perspektibatik libratzeko. Bere iritzia pitin bat bederik justifikagarri nahi baleza, behintzat. Euskal poesia, europarrari berdindu nahi izan bazaio ere, hemengoari behintzat oso diferente gelditu zaio (eta hala behar du izan ere). Ez ba, duena baiño garrantzi gehiagorik eman banaketa honi.

* * *

ATZERRIKO eragiñen artean ELIOT-ena aipa beharrezkoa da. Honen ondoan surrealismoak eman dio alemaniar poesiari aparteko eragiña. (Espresionismoak ez gutxiago, baiña honen eragiñeko jatorrenak, BRECHT eta, aparte begiratu beharrekoak lirake).

CELAN, adibidez, surrealismoari zor zaio. Celan-ena agian, gerrostean liriko ifork izandako oartzunik zabalduena. Logika ausia, hitz montajea, metafora berria, bertso luze salmodiko nagia... Paul CELAN judegua bide da, Ausschwitz-eko irudiaren illunbeak anpatzen dio bertsoa. "Die Todesfuge" (Eriofuga) poema mundu osoan ezaguna billakatu zaigu, eta gas-ganbara ta konzentrazio-zelaiek izan duten poesiarik sentituena ta egiatiena berauxe, izango da dudarik gabe. Etsipen mantsoko poesia, sinagogako otoitzen zurrumurruaren ritmo leunean, irudi gutxi elemental batzuk berriz berritzen direla, karrusel trajiko bat biraka lebilken bezala.

Bertso luze nekatua abandonaturik, bertso motx giartsuari ekin dio gerora Celan-ek. Poeta serio ta zintzo bezala, gure aldiaren lekuko egiaiti bezala baiño ez gutxiago, ezaguna ta estimatua da gazteen artean. Berebiziko eragiña, berea. Baiña Celan-ek ez du dagoneko esperantza haundirik, poesia berrienari buruz. Politikeria biurtu ei da poesia, agian "engagée" izateko aitzakian. "Esku egiazkoak bakarrik idazten dute egiazko poesia". Paris-en bizi da.

Esaera gogor eta direktokoa da Ingeborg BACHMANN-en poesia ere.

Fantasia absurduaren eta surrealismoaren alogika, pinturatik hartutako elementoekin nahasian, elkartu gabeko gaiak bata bestearen ondoan pilla'uta (goardasola, parkea, zaharrak, atari bat, ume bat eskolatik, goardasola, autoak, euria, goardasola...), hizkuntza bixi ezinegona, irudi libertituak, txiste bat eta kritika beltza, desordenu izugarrian intelektualismo fiñena, hori dana ta gehiago, edozer gauza gehiago (!), ba dakizu, Günther GRASS.

Neurrianago datozkigu Hans Magnus ENZENSBERGER (1929 jaio) edo Walter HOLLERER (1922). Txukunago, landuago, apaifiago. Eta sakonago, esperimentalismo arduratsuago ta zainduagoz, sustraitarrago. Biok amerikar lirika "denporakritikoaren" bidetik ari zaizkigu eta lehenengoak batez ere —profetara sartu gabe— izen eta kondairan leku miretsi bat irabaziko dutelakoan nago. Geroak hitza. Esibiziorik gabe, baiña tinko, lirikaren barnetasunari muzifiñk egiten ez dion gizarte eragiñeko poesia dakarkigute biok. Makfiña bat alegiñek lorturiko askatasunaren frutu konsideratuko nituzke nik, batez ere Enzensberger.

Poesia idaztekoan poesiaren materiala "hotz landu behar zala" irakatsi zuen Benn-ek. Zein material dugu hau, ordea? "Poesia idazlearen materiala —erantzun du Enzensberger-ek— lehenik eta azkenik hizkuntza da. Poesiaren material bakarra hizkuntza ote da,

halare?... Bai, jaunak: gaia ere, dilubioaurreko, modatik pasatutako gaia ere bai, poesiaren ezingalduzko materiala da. Bertso bat idazten badut ezin dut inola hitzegin, **zerbaiti** buruz ez bada. Eta **zerbait** hau, hitza bezala, zerbait horrez hitzegiten duen hitza bezalaxe, nire materiala da”.

Gaia poesiarentzat aitzaki huts dala dion iritzia indartzenago baidator berriro, gaia estimatuegi zutenen kontrast. Eta San Martin-ek ere, hemen E.-ek bezala, bere aipatutako hitzaldian, gaiarentzat zuzentasunez dagokion ohorezko lekua reklamatu ez ote zuen susmoa badut. Hirugarren klaseko estetizismo eskolaume batek zokoratua bai zeukigun gaia gure artean. Estrukturagain denak bezala, poesiak ere bere azpia, estrukturapea galdurik, berekasa, autonomo (artegatikoko arte!) bizitzeko grina amorratua baitu. Baiña poesiak ezin izango du —pentsamentuak ez du— gaiaren aurrez holako askatasun absolutorik sekula gozatu. Probatzen duenokoxe urtutzen eta deuseztatzen da-ta. Dialektika poesian ere lege baita, ordea, ba liteke gaur beste puntara joan izana (“Agintariak hitzegin bazuten, hitzegingo ere dute agintatuek”. Bert BRECHT, **Dialektikaren laudorioa**) eta gaur gaurkoz euskaldun poesian interesatuok gaiari, hitzaren eta formaren abandonoz, arduratuegi begiratzea.

* * *

BESTEREN kaskarretik ikastea ez da oitura, baiña oituren kontra gabiltzan ezkerro, ez litzake txar izango oraingo honetan behifipein lezioa garaiz ikasiko bagenu. Pozik esango nioke, ba, Sarasola-ri: poesia danak ez dira maillu (ze, mailluak ez beste zerbait ere behar dugu noski), baiña ezta maillu bat bakarrik ere ez da poesia, zuk biurtzen ez baduzu. Eta beste zerbait, permititzen badidazu: euskal poesiak dandik honeraifio luzaro eta alferriki espero zuena zuk eman zenezaioke. Eta Saitzarbitoria-k...

* * *

FRASE batekin karakterizatuko nituzke nik alemaniar poesia berrienaren alegifnak: hitza galdu egin zan eta bere lekua billatu nahi du. Zibilizazioa arin batean aldatzen doakigu eta berekin mentalidadea. Hitza ordea, poesiaren hitza modu zaharreri, tabu millari ta milla arauri estekatua dago oraindik. Etiketako hitzak izan du poesian sarbide bakarra, kastako poesia egin da. Bitartean, ordea, hi-

tzak dimensio berriak aurkitu ditu gizartean, poesiak jasotzen jakin ez dituenak. Slogana aipa diteke, hizkuntza zientifikoa, teknikoa, sexo hizkuntza ere gizarretarragotu egin da eta refinatu, zinema edo argazkien muntaje prolema Kodak bat darabilen edozeinekin aipatzen dizu, konferentzia baten muntajeaz mintzatzen gera, etc. Hontaz ohartu dira poetak: eta muntajea hasi dute berek ere. Eta hontaz ere bai: gerra ondoan gai haundiek, borobillek mantendu zuten poesia. Herriaren zortea nahiz kulturaren, politikaren, industriaren, nahiz askatasunaren, batasunaren aldeetatik bategin da agiri zalako. Zatiok, astiro astiro, banatzen joan ziran ginoan ordea, arteak ere bakoitza bere bidea egiten hasi ziran. 1945-ean europar kulturaren lurrikararik altxatzen zan lirikak ezituen oraindik bere burutasun eta nortasuna ondo ezagun, eta dramatikarekin (gaurkotasuna ta helburua manejatzen dituen) eta epikarekin mahaskorapillatuta zetorren.

Euskal herrian ere literaturjeneroak berexen ba dugu nun zer egifa. Ba ote dago, galdera da, Gandiaga ta Aresti gonparaterik, gero? Nork alderatu Wagner eta Chopin?

Joanak eta alegifak bere istantetasuna aurkitzera ekarri du alemaniar lirika. Eta poetak gerra etab. gai haundiak, aia betetzen dutelako hitza pronunziatzen uzten ez dutenak, mundu barnekoaren kontraspillatze ta paralelo kosmikoak baizik ez dirala ikusirik, haiek batez ere dramatikoen utzi ta atzera barnetasunera biltzen ari zaizkigu. Ara, Ausschwitz zera da epiko batentzat: herri bat gasil dute, sei milloi, zitalkeria hutsez. Eta segun nola realismoa ulertu: imperialistak egin dute hori. Lirikoak ordea: atzo gabean preso eraman dute udazkenean ezagutu nuen neskatxa beti bildurrez zegoena. Botin lustredun dizdiratsuak zeuzkaten gizonak. Ausschwitz-eko hesialanbreetan ez da aifnararik atsegitera gelditzen. Dramatikoen: (gerra ondoan) pobre gera eta, seme, nire txaketa jantzi beharko duzu kalera joateko. Poltxikoan zazpi milla kondenaturen sententzia paperak dauzkat, erre egin beharko ditugu, baezpadan. Gutxi gora behera.

Gai bat elemento desberdinekin eraiki liteke, ta elemento diferentek formak ere ugaritu egiten dituzte. Gaiatalak eta forma diferente izaki, berriz, arte bakoitzaren lekukotza ere modu diferentetan gauzatzen da. Wolfgang WEYRAUCH-en irudi bat neuretuz honela agertuko nuke lirikaren lekukotza premia ta era: osifa lo zegoen eta nik harri koxkor bat bota dut uretara. Harri koxkorra ondora joan zan. Baiña ur ondolik urponpoilak igotzen hasi ziran eta igotzen, eta uhintxo zirkuloak borobiltzen ziran eta borobillagotzen. Gaur osifa ez da osin.

HIZKUNTZAREN prolema da gaurko alemaniar poesiarena. Deskonfiantza nagusitu da bazterretan hizkuntzarekiko, hizkuntzaren komunikazio ahalarekiko, hitzaren beraren mami eta balioarekiko. Hortik espermentalismoak. Hizkuntza berri bat sortu beharra. Ugaritu dira saioak eta milla proba probatu. Errealidadea hitzaren bitartez besartzea posible ote dan galdetzen dute gaur poetak, atzo filosofoak bezala. Lirikaren eta gauzatasunaren arteko elkar puntuak gehiagotzeko premia sentitzen da. Filosofiako sistemetan fedea galdu genuen atzo: errealidadea sistemak baiño aberatsago da beti. Eta metafisikarik sarkorrena poesia izango zala itxaro genuen. Agian, halaxe da izan, sarkorrena, ez ordea nahikoa sarkor. Ez eskola batek, ez joera batek, ez sentimentu batek, ez arte batek, ez danak batera, gauzatasuna bere osan jasoko digute. Beti izkutatzen du errealidadeak urrunago bat. Dana gutxi izango da, dana behar dugu. Zer dakigu zertan datzan poesiaren gaurkotasuna, poesia zer dan eta zer gaurko errealidadea ez dakigu-ta!... Horregatik zion H. M. Enzensberger-ek: "Poeta asarrekorrak ez dira ez hobe ta ez txarrago poeta leunak baiño, eta ez dago arrazoirik batere espiritu tragikoa parre eragilleari hobe izateko. Utz ba poesia idazlea pakean bere sentimenekin".

* * *

HONA HEMEN alemaniar lirikaren egoerari begiratu azaleko bat. Beharbada ezagun zituen izen batzuek falta direla nabariko du irakurleak. Izen haundiak —CAROSSA, TRAKL... Zertako haieri buruz jardun, ezagun asko dira-ta? Gaur gaurkoen batzuek, apika. Nire asmo, batez ere, beste nunbait laburregi esanak osatzea izan da (cfr. Mitxelena-ren ohorez agertzeko dan liburua). Alde batera utzitako izen batzuek, merezi baitute ezagutzea, zita batzuen bidez presentatuko dizkizut, akaberan. Beste batzuek, apropos baztertu ditudanez gaiñera, ez ditut agian behar bezala ezagutzen edo estimatzen. Lege da norberaren neurritasuna ta mugatua aitortzea. Pozik hartuko ditut irakurlearen oharra.

Euskal poesiaren gaurko joeren perspektiba kontuan harturik egiñak dituzu notaok. Hari egokitu nahiez, beraz.

Hans Magnus ENZENSBERGER.

“Nire poesia nire labana da—
baña ez da on patatak zuritzeko”.

Rudolf HAGELSTANGE.

“Poetaren lehenengo erabakia formarena da, hau lehenen-
goa... Eta honen ondotik beste erabaki asko, zerrenda bat esan
diteke: erabakizatizko kosmos bat. Ia hitz bakoitzaren aurrean
erabaki beharra”.

Hans Egon HOLTHUSEN.

“Poesia da... hitzegiteko modu bat, hitzegiteko beste edozein
modulatik —ifuzo, jakintzazko, filosofiko etab.— zeharo berex-
ten dana”.

“Hitz eragiñaren gauzatzean aurrenik kristalizatzen dana te-

iritziak iritzi

(1) JAKIN, 20, orr. 5. ba da esate bat, ifiola ulertu ezin dudana:
“Jon San Martin-ek bete beterako hitzaldia egin zigun “olertiaren
jantzia nundik sortzen dan” gaitzat harturik. Jantzi hori ez da sortzen
azalaren ederretik, muiñaren goitasunetik baiño”. Lehenbizi esan
beharrekoa dut, ez naizela ondo konturatzen afirmazio horren muga
zehatzez. Ez dut eskumenean San Martin adiskidearen hitzaldia, bai-
ña A. ALBIZURI-k hitz horiekin idarokitzen duela iruditzen zaidanari
irimo kontrajarriko nioke nire iritzia: forma ta muiña kontrajartzea
zeharo faltso da poesian (arte guztian eta filosofia edozeifnetan ere
ezpada). Gaiaren eta formaren dialektikan biok elkar determinatzen
baitute, elkarrenganako indarregite hortantxe datza dialektikaren
batasuna-ta. Hitz da, bestetik —gai eta forma batera izaki— poesia-
ren lehenengo gaia, eta gai berezko bat dalakoxe poesiaren nekeak,
errealidade befi misteriotsu bat hitzetan ontzi bat jasotzeko. Halare,
nolabait elkar ulertu behar dugun ezker, banaketa hori ontzat onar-
tu ta hartaz baliatzekotan, ez mamiak, formak baiño duela poesian

ma da, alegia, forma billakatutako tema. Temarekin, beraz, berez emana dator forma ere, eta aldrebes”.

“Kontenidu hitza hasieratixe baztatu nahi nuke, gaitzuler-tzeari atek ixteko... Poesia batean forma eta kontenidua berex-tea posible balitz bezala”.

Max HOLZER.

“Gauza bat dakit nik: poesiak jainkoen erreinuan parterik badu, baita haien Elizarekiko ta Estaduaiekiko etsaigo erremedio-gabean ere... Poesiak ez dauka gizonaren “zentsun sanoarekin” eta bizitza praktikoarekin zerikusirik batere, hizkuntza hortan itzuleziña da. Erreboluziogille da beti, erreboluzioaren oiforde-koeri honezkero atsegin etzaien hantxe ere”.

“Surrealismoak, Amodioaren eta poesiaren alkimiak dauki-gute zabalik etorkizuna”.

Albert Arnold SCHOLL.

Erabakigabea dago poesia gaidunaren eta abstraktoaren ar-tean. Bietatik idazten du. Berak definitzen dituenez

—bigarrenak “ez du besterik izan nahi, forma estetiko hutsa baizik”.

lehentasuna pentsatzen dut nik, ots, forma dala poesiari poesiatasuna ematen diona. Formak eratzen du, ba, izatekoaren izate konkretoa, estuktura. Heidegger-en hizkeran esateko, zertasuna zertzen duena, edo izanteari norbera izateko tasuna ezarri. Edo ta marxismo-ra ba gatoz, gauzatasuna “kontraispillatzen” duten ideiak lirake poesiaren gaia, baiña hoen espresioa espresio **poetiko** eta ez beste zerbait edozer biurtzen duena forma da. Gaiak forma determinatzeak, bestetik, —hori ere egia baita— ez du esan nahi ifiola ere (Marx, eta edozein) forma pasiboki konportatzen danik. —Harri pilla bat, segun eta nola eratu, harri pilla bat izango da, edo etxe bat edo zubi edo kolumna. Kolumna hori doriko nahiz joniko izan leike, noski, baiña honek gehienez ere probatzen duena zera da, **eskola** bateko edo besteko formari lotzea baiño begiratzekoago dala forma. Baiña hau, niretza-ko, arrautzak mailu batekin borobiltzen jardutea bezalatsu da. Ez ditzagun forma eta eskola nahastu.

—lehenengoak “zerbait esan nahi du... eta idazleak tema bat behar du bere asmoa gauzatzeko. Asmo hau estruktura liriko bat lantzea da, forma poetiko bat desarrollatzea”.

Teoria desberdinetatik adartzen dira joera biok: “Nik orain-goz prolema ikusten dut, ez soluziorik”.

Karl SCHWEDHELM.

“Idazleak ez du... gaia billatu egin behar. Eman datorkio, eta menderatu egiten du”.

Peter RÜHMKORFF.

“Poesia bat ezin bizi diteke bere eragite edo aldagite politikoen esperantzan. Galdetzen badugu, izan ere, poema bat gauza ote dan poesiazkanpoko zerbait, zerbait gizartetar sortzeko, gizarte prozesuak martxan jartzeko, erreboluzioak eragiteko... etzaigu erantzun penagarri hau besterik gelditzen: ez eta sekula ez. Ze espresatzea da bere balioa ta muga, eta poesiarako gaitasuna duteneri bakarrik egokitzea da bere aberas eta urritasuna. Ez du honek esan nahi, ifola ere ez du honek esan nahi, gero, esanahi ertsiago batean, poesiak beste errealdaderik gabe, gizarteko edo politiko hartuemanik gabe, pasa leikeanik. Zer-

(2) Gustoak gusto. Metrika austeia moda pasakor izango dala dio Urliak. Baiña pasakor izatea (eta halaxe izango al da) eta moda soil izatea ez dira berdin. Wolfgang WEYRAUCH-ek ere rima beharrezkoa dala eusten du. Eta iritziak iritzi, ez dakit odol garratzez hala umore inbidigarri primerako batez, zera diosku A. ONAINDIA-k Orixe liburuan, Orixe-ren eta Lekuona-ren lekukotzan oñiarriturik, itxuraz: “...poesi bat beti ere ederrago, txukunago, dotoreago dagoa apaindura horrekin, (alegia, azkenberdintza). Eta ifioiz ifiorik eskubide hori hartu nahi baldin ba’du, hau da rima ta puntu gabe bertsoak egitekoa, idatzi dezala aurrenik Orixe-k haifia neurtitz eder rimarekin eta, gero, jardun dezala batere gabe. Bide berriak nahi? Bebil lenbizi bide zarrez, eta gero saiatu bedi bide berriak urratzen” (141-142 Or.etan). Uste dut eskolako ta publikoarentzat argitaratzeko aroak korapillanahastu dizkigula A. Onaindia-k. Amadis de Gaula idazten arituko litzaiguke oraindik Cervantes bide hortatik, eta Lelo

gatik?... Tensio gabe, kontrast edo elkarrerlazio gabe poesia legortu egiten da... Bakarateratzeak, errealidade naturalen harantzagotik edo gizartetar on nahiz txarretik etenda jarduteak, absolutuaren gai poesia egin nahi izateak, poesia absolutu agor egiten du”.

“Poesiaren egia bere indarrikeza da...”

Dana dala, ustekoa naiz ni, politikako gai berezietz diarduen poesia esperantzaz baiño mantentzenago dela desilusioez, eta mixionatzeko grifa ta palanka izateko nahia premisa elkorrak direla (poesian)”.

Poesia ez da “Partiduak sortzeko”.

Wolfgang WEYRAUCH.

“Kezka sortu dut. Tabuak burukatu ditut. Poesiaren pragmatista bat izan naiz”.

“Ba da jendea pentsatzen duena idazleak ez daudela hor zerbaitetarako, baizik hortxe egon daudela, soilik egon. Oke-rean daude”.

“Rima beharrezkoa da”.

“Idazleak profeten ordezkioak dira, haiek galdu egin ziran-eta”.

lireloka Orixe, etabar. Strawinsky-k eskolara joan beharko luke berriro, armonia ikastera, eta Mussorgski-k sikiatrarengana eraman bere Boris Godunoff, aluzinaziorik balu karnaxi desarmonikorik bota ez dezan publiko errespetagarri osoaren bixtan. Débussy-k lenbailen esnatu beharko du bere Faunoa, eta edukazio pixka bat erakutsi bere Avignon-go Neskatzeri Picasso-k... **Rima** hitza, edo frantsesezko **rime** (handik zabaldua dala uste baitut gaurko esaeran) antxiñateko frankoeratik adartuak dira eta aleman-zarra dute iturburu: **rim**: illara, lerro; lumero. Honen bizkarrezur, berriz, **Ar(e)** sustrai indogermanikoa ei da. Hortik **arithmos** griegoan. Ikusita dago, poesiarako lehen-bizi aritmetikan entrenatu beharra izango dugula... Sortuko al zaigu Pitagora-rik baztarren batetik. Rima, guztiarekin ere, etzaigu beharrezko agertu kondairan, ez sortaldekoen ez germanoen poesian. Eta euskaldunon poesian erderazkoetan ez bezelako prolemak presentatzen dizkigu. Aldi bateko esijentziak sortu zuena ezin ote dezake

beste aldi batenak iruntsi? **A priori** ez dago rima baztertzerik, noski, baiña gaurrerako gaurko arrazoiak ez baditugu, ez ote da hori bera nahiko **a priori** eustea? Baiña gaurko poesiaren hizkuntzak ritmo aritmikoak-eta (zer ari zaigu musikan gertatzen?) eska ditzake. Nahikoa ote dugu ba, **encabalgamiento** ta kideko rima-tranpa horiekin? Ez naiz rima austeak justifikatzen geldituko: sustraiak zoziologian bertan daudela iruditzen zait. Ohar bat bai, halare: poesi apaingarri hau hizkuntzarik gehienak ontzat emana dala esaten zuen Lekuona-k noizpait. Noizpait, ordea, ze denporak aldakor baitira. **Ritmoa** bai, beharrezko uste dut nik ere Sédar Senghor-ekin, (eta nahi bada musika eta dantza!), eta ritmoak sortu zuen azkenberdintza. Beraz, gaurko ritmo sentiduari rimarik ba ote dagokion, da galdera, edo rima gabe ritmoa ere galtzen ote dugun. Ezetz uste dut. Eta uste dut, gurean ez bada, duda haundirik ez dala honezkero iñun hontaz gelditzen.

«Les Chaises»

edo Ionesko'ren mundua

joan mari torrealday

“Les Chaises” edo “Aulkiak” da, batzuen iritziz, Eugène Ionesko'ren obrarik nabarmenena. Dalarik ala ez, garbi azaltzen dira, beñe-pein, obra hontan, Ionesko'ri komunzki itsasten zaizkion pentsa-joera ta ideologi-mota gehienak.

Egia esan, ez da samur Ionesko'ren pentsamoldea eta ideologi-sistema hori eratzea, apropos kenduak ditu-ta bere teatroaren asmoe-tatik. Lehen ere esana dut bere jokabide ausarta hau. Halere, auzia behin betirako garbi dedin, bere hitzak erabilliko ditut: “Asarre hau egin zait: ideologi totalitarioaren (Rhinocéros-ean) aurka dago Ionesko, bai, baiña zein pentsaera proposatzen du berak horren orde? Sistema baten orde besta bat jartzea, orde, ez da nere egikizuna”.

Antiintelektualista porrokatua da Eugène Ionesko.

Ionesko'ren idazlanen auzia ezin diteke bi lerrotan garbitu, esplikazio batek ez baitu haietako gaia agortzen. Ionesko'ren lana “oeuvre ouverte” edo hoietakoa da, alegia, anitz azalpen ta interpreta-zioei atea zabalik uzten dien obra. Ta “oeuvre ouverte” bat

epaitzeko bere ikuspegian eta testuinguruan jarri beharra dugu. Ta hau ez da erreza. Zailtasun oni Ionesko'ren iritzia teatroaz gaiteratzten badiogu, zer esanik ez. Ze Ionesko'k berak dionez, teatroa, bere ustez, "hapening" bat da, jazoera, gertaeraren antzekoa da; hori bai, askoz ere pentsatuagoa.

Hau dena gogoan harturik, nere asmoa Ionesko'ren obrako ideia nagusienak ixtudiatzea da, "Les Chaises"-eren eskutik. Hortarako, esplika dezadan bere gaia labur, segidakoan bertako pentsamoldea arakatzeko.

Ugarte bakarti batean bi ezkon-zar bizi dira. Izenak: Agure-zarra, Atso-zarra. Atezaiñak dira (heuren mintza-moldean; bizilekue-tako mariskalak). Anitz urte daramazkite alkarrekin, gauero ipuin bereak kontatzen dituzte, pixkat asperturik. Hau bateko. Ta besteko, mezu bat (bizitza guztian egin du lan hortan), mundua konpondu dezakean mandatu bat du Agure-zarrak. Gaur azalduko du bere filosofia hori. Dei bat egin dio, hortarako, munduari, ta han datoz gizon, andere, ume, ta kaisarra bera ere. Agertu ez, ez da iñor agertzen antzokian, baiña agertuko balira bezela darabilzkite aulkiak komeri osoan. Azkenik, mandataria dator, Agurearen mandatu eman dezan preparatua. Agureak eta Atsoak, bitartean, bere sakrifizioa opalduaz eta onetsiaz, uretara salto egiten dute. Hizlaria bai, agertzen da, baiña gor-mutua da.

Ionesko'ren obraetan ba dira nabarmen aurkezten zaizkigun ikusera batzu: egoeraen nabarmenkeria, gertaeraen segidarik-eza, egoera ta gizakumeen eragabetasun parregarria...

"Aulkiak"-etan ere gogoko zaio Ionesko'ri giro horixe: atezaiña izanik mezuaren eta gizatasuna aldatzeko ba dan filosofiaren jabe da Agurea. Normal al da agureak munduari egindako deia, eta —areago!— dei horri kaiser-jaunak berak ere, ontzat harturik, jaramon egitea? Zoro-taiua ere hartzen zaie Agure-zar ta Atso-zarrari, ta hau ere Ionesko'ren asmoa da. Bikotearen elkarriketa bera ganora bakoa da, eta ez du, gehienetan, ez buru ta ez buztanik.

Diogun giro hau dena apropos eraturia dagoala eta esanai sakonekoa dala esan beharrik ez dago. Itxuraz bakarrik du parre-giroa. (Ionesko'ren obraetan umorea ixtudiatzea interesgarri litzaiguke,

bere gardiz, askatasuna baita umorea, eta berak dionez gaitza garaitzeko bidea gaitz horren atzetik parre-egitea baita. Hortara tajutua dago "Les Chaises" ere).

Egoera ta jokaera hauekin, gizakume ez-oiu ta nabarmen hauekin, gure itxurazko munduari bere itxura eranzi nahi lioke. Ez dago Ionesko mundu honen izatasuna barreiatzeko. Ionesko ez dago bizitzaren aurka. Bai gure bizieraren, "gure" munduaren kontra. Izan ere, guk askotan izatasun bat ematen diogu munduari, ta izatasun hori ez da egiazkoa. Beste askotan, egiari ez atxikitzeagatik eta bizieraren sentiduan ez sakontzeagatik, besterik gabe ematen ditugu ontzat egoera asko (oituraren inertzia!). Utikan gezurra, konformismoa ta konbentzionalismoa: hoietxen aurka dago Ionesko ziurki. Itxura ta gure axialuria desegifik, munduaren eta gizonaren miña ta benetasuna garbiago ikusi ahalko da, uste bide du Ionesko'k.

Materiak gizona ta bizitza itotzen ditu Ionesko'ren obran. Aulkiak ekarri eta ekarri: azkenerako eszenario guztia aulkiz betea dago, ibiltzeko ere lekurik ez. "Utzi nazazute pasatzen". Ezingo du, ordea. Gizonaren bizitzan gertatzen danaren sinbolu da materiaren garaipen hori. Gizakumea gauza gauzaeztanetan galdua arkitzen da, kateatua, menperatua, itoa, asfisiatua. Zapaldua eta zanpatua ere.

Ezurretaraiño ikara sartzeko ba da, "le Rhinocéros" draman, bere inguruko gizakumeak oro pizti bihurtzen zijoaztelako, etzekion holakorik gerta, etxe barnean sarturik, Berenguer'ek xixpa eskatzen duanean eta karraxika arikatu: "Mundu osoaren aurka, mundu osoaren aurka defendituko naiz, defendituko naiz. Azken gizona naiz, azkeneraiño jarraituko dut gizon! Ez dut amor ematen". Piztia, materia, nagusitzen zaio gizonari.

Beste askotan, gauza bilakatzen da gizona. Halere, "les Chaises" komeri hontan ez dut uste gizonaren "gauzatzea" defenditzen duanik Ionesko'k. Obra hontan gizona ez da "gauza" bihurtzen, naiz-ta gauzaren menpean agertu sarri. Labur lotutako piztia iduri du gizonak hemen. Ezin iritxizko urrutiagoko larrea zaio gozagarri. ("Anbiziorek izan bazenu, askoz ere gehiago izango zifaken ahal"). Hauxe da, alde batetik, "Aulkiak"-etako gizonaren funtsezko problema: sarri agertzen da "izan zindeken", izan zitekena, errealdadean "dana"-rekin kontrastatuaz. Ziteken'aren

señalatzekoak dan'aren neurria konzienkiago hartzekotik at ezertarako balio ote du Ionesko'ren obran? Hauxe da hemengo gizona: haundia bokazioz, mugatsu egiteen arabera neurtuaz; munduaren erregetzara deitua ta destinatua, eta frakasupean datzana: "ni ez-beharren bildumari nintzan, ondamentien tximist-orratza", aitoritzen du Agureak leiotik bere burua itxasora bota aurretik.

Gaurko literatura askok salatzen du gizonaren eskasia ta ezdeuseria. Ionesko ez da kaso arraro bat. Literaturagille askoren ustez, gaitzera, gaurko zibilizazioak, xedeak aldrebestuz, buruz-behera jarri du gizona, derriorezko nora-ezean, funtsaren faltaz. Sasi-soluzioen eraman-endarrez frakatura amildua. Euskal testigu bat ekartzekotan, Txillardegik dakarkit: "Gure zibilizazioaren xedeak... hutsa dira, eta suizidiora daramate. Gure zibilizazio guztia huskerietan ari da, huskeriaz elikatzen da, eta hutsak ez bestek bete ditzake". Segidan produzioaren mitoia ixitudiatzen du Txillardegik (ikus "Huntaz eta Hartaz", "Marilyn'ek bere burua hil du").

Asaldatua bizi da gizona. Bere etsaia materia bakarrik balitz, gaitzerdi. Materialak zapaldu egiten du, egia da; baiña beste gizonak embarazu, ta engaitatu:

"Zoritxarra eraman diet nik nere adiskideei, lagundu didaten guziet"...

"Nere etsaiak oro sarituak izan dira, eta nere adiskideak saldukeria egin didate".

"Nere ugazabak kalera jaurti ninduan bere txikiari, bere zaldia errebertziarik ez niolako egiten".

Zerk biziartzen du gizon hau? Errealitatea hain illunik ikusita pentsa diteke eztagola interbinderik. Suizidioa al du soluzioa gizon honek? Ez derrior!

Agure-zarrak bere mandatuan lan egin du bere bizitza osoan. Misio ta egikizun baten konzientzia du. Uste du bere errailetan gizatasunari emateko filosofia bat duela. Emanaz batera, mundu hori salbatzeko baiña ba dana. "Gizatasuna salbatzeko egitaraua dut nik", dio ustekor. Munduaren salbabide hori izan da, hain zuzen, bere eragozpenen hausle eta bere bizitzaren eusle. Egi-

kizun horretzek eman dio bere bizierari sentidua, eta behin hori lortu ezkeru bere burua opaltzeko gertu dago gizona. "Ez zait alperrikakoa nere bizi-tza, nere mezua munduari agertua izanen baita".

Iritxi da mandatua munduari komunikatuko zaion gaua. Dramaren gallurrean gaude. Momentu batetik bestera mandataria dago sartzeko, mezuarekin. Une hontarako bildu da jendea, une hontarakoxe bizi izan dute bere bizia Agureak eta Atsoak. Lehen, jendea etzalarik sartzen, benetako pertsonak balira bezela tratatzea eskatzen bazuan Ionesko'k komerian, orain beste hau dio: hizlaria, egiazkoa ez balitz bezela ager dedilla.

Mutua da mandataria. Ez dago mezurik. Agurea ta Atsoa urpean daude, bizitzan zear gaitz-aldietan egon ziran bezela denboran eta betikotasunean alkar-arturik. Uts ta putz bilakatu da zorrioneko mezua.

* * *

Esango da "les Chaises"-etako gizon hau ez duala Ionesko'k asmatu, ta ez dala berria ere. Uste arren, esakuntza hau ez doa Ionesko'ren kontra. Esistentzialismoak eta gaurko beste literatur-joera batzuk sarritan ezurmamitu digute, bai, gizon hau bere eskasian. Hoiak ere ez dute asmatu, ordea. Asmatu, ba dakigu, pekatuak asmatu zuan. Hura ezkeru Grezia zaharrean, Erroma antzifnakoan, lehen eta orain, beti azaldu izan da gizon hori. Indiatarren "yûpa" bera, zeru ta lurra alkar-artuaz, ez al zan gizon horren egoera hauxe soluzionatu behar batetik sortua? Erlijioak oro ez al dabiltza horixe soluzionatu nahiz? Kristianismua ez al dago hortarako? Bai, erlijio guztietan dago Paradisu-ametsa eta hara beharra! Betidanik sentitu izan du gizakumeak bere ahultasuna, bere ezdeusa, eta beti desira izan du salbazio-gogoa ta betetasun-nahia.

Mundua bezin zaharra da problema hau, ta mundua bezin zabala. Behin baiño gelagotan esan du Ionesko'k gizonaren funtsezko probleman egiten dugula guztiok bat. Hain da gurea problema hau, ezen, aurrerantzean, "Aulkiak"-etako hitzak erabil ditzakegula gure egoera ta sentiera azaltzeko. Ionesko'k hitzak pres-

tatzen dizkigu. Ta ara hemen, berriz diot, zergatik dan Ionesko herrikoia. Ionesko'ren Agure ta Atso sinbolu zaizkigu, bere haunditasun-amets, bere salbazio-nahi, ta nahi ta amets hoiendeusezpen ta guzti. Giza-bizitzaren irudi.

Ionesko'k ez du ez erantzunik ez soluziorik bere teatroan ematen (bakoitzak egin behar du hori). Ez al da aski, oster, gabiltzan bide okerretatik ez dugula interbiderik garbi erakus dezaigula?

EUZKO OLDOZKEREA

urtzago

I. Euzko-oldozkerea zer dan.

Garrantzi aundikoa da euskeraz idatzi eta euskeraz itz egitea, baiña garrantzi aundiagokoa euskeraz oldoztutea. Gure izkerea edo gure itzak nai idatzita dagozala nai aboz oguziak dirala gure barruko adimenaren eta oldozkunen agiria baiño eztira. Barruz oldoztu eta barruz eratuten doguna, aboz nai idatziz agertzen dogu. **Verbum oris manifestatio verbi mentis**, antxiñako laterritarrak esan oi eben lez. Geure barruan sortzen doguna, abotsez naiz beste orrelako bidez ataz azaltzen dogu. Izkerak adimenaren agerbide eta ezaguntza-bideak dira. Nola izkerea ala oldozkera edo adimenaren ezaguntza ereak, nola adimenaren bideak alan izkerek.

Gaszte nintzala Ikastetxe Nagusi baten nengoala, sarri ezta-baideak eta iskanbillatxuak izaten genduzan atzerritarrakin eta eurak lantzin bein aurpegira jaurtiten euskuen onelako irañen bat: **Zuek, euskotarrok, beste bidez zabiltze beti, zuek eztozue besteak lez oldoztuten.** Eta irain lez aurpegira jaurtiten euskuena etzan iraña, egi biribilla baiño. Guk euskotarrok eztogu besteak lez oldoztuten, guk geure era ta bideak doguz, guk geure oldozkerea dogu eta gure

oldozkerea ezta beste erritarrak dauken oldozkerea. Egunoro entzuten dogu **The British mentality, the French mentality, the Continental mentality** eta orrela. Engelandarrak eta parantzetarrek eta txiñatarrak eta japandarrak-eta, euren oldozkerea daben lez guk be geure oldozkerea dogu: **the Basque mentality**, Eusko-oldozkerea.

Adimenak Jaungoikoak egñiak dira. Giza-gorputzak'tzaz, dana dala, giza-gogo eta adimenak'tzaz eztago ezpairik, **Zuek eta ni ere Jinkoak gñiek gire** gure abesti zarrak diñonez. Ez Charles Darwin'ek ez Teilhard de Chardin'ek dabe onelako egi aundirik ukatu. Gure gogoak, gure adimenak Jaungoikoak egñiak dira; baña Urtzi Jaunak gogoak eta adimenak eratu ebazanean gorputzetan eratu ebazan eta gorputzakin artu-emon lotu lotuetan jarri ebazan. Giza-seme-ala-baen adimenak, ludi onetan bizi garanez gorputzakin lotuta, nastauta bizi dira eta batak besteagandik laguntza aundia artzen dau. Adimenak, aditu ta aitu ta ulertu egiteko, gayak irudimenetik artzen dauz, irudimenak sentsumenetik nai entzumena, nai ikusmena nai usaimena ta abar dirala. Gorputzak be barrutik, gogotik artzen dau bere bizitza eta bere margo eta beste-tasun asko. Gogoak, naiz ta gorputzetik azke izan, gauza askotan gorputzagandik laguntza artzen dau.

Gu euskotarron gorputza beste erri guztietakoen gorputzak baño bestelakotxoa dala nai burazurrez, nai ulez nai odolez jakifia da. Odolez, or daukaguz giza-odola aztertuten ibilli dabiltzanak eta Reshus ezezkoa eta olakoak guban aurkituten dabezanak. Gorputzez, ba, nai odolez bedegarrak garala-ta, gogoz eta oldozkeraz be bedegar izan bear. Eztot esango antxiña gure Huarte de S. Juan'ek bere EXAMEN DE INGENIOS'en idatzi ebana egia danik, baiña gorputz eta gogobitartean artu-emon estua dagola bai, eta beraz gorputz bedegarrak eta odol bedegarrak oldozkera bedegarrerako bidea dirakaskuela.

Ortik datorkigu guri, euskotarro, **gure OLDOZKEREA**.

II. Eusko-oldozkerea nun eta zetan agertzen dan.

Esan dodanetik ulertu gegike enda bakotxak, bere izakera bedegarra daukala-ta, bere oldozkera bedegarra daukala. Nun, baiña, agertzen ete-da oldozkera ori? Itzetan? Ez, itzetan bakarrik. Itzak bakarrik eztira oldozkera, oldoz-gai,gogai, uste baiño. Oldoztuteko itzak bata besteakaz lotu eta josi egin bear doguz. Argibidez **txakurra, gizona, mendia** eta orrelako itzak gogo-gaya emoten dauste

baña berez eztira oldozkera. **Txakurrak zaunka dagi, gizona adimenduna da, mendia urrun dago** eta orrelakoak esaten dodazanean oldozkuna dagit eta oldozkerek erabilten asten naz. Oldozkerea itzak alkarrekin josteko erea, alkarrekin lotuten ibilteko bidea da. Gazte nintzala Cesar Cantu jaunaren HISTORIA UNIVERSAL irakurten zale nintzan eta bein Mayans jaunak-edo auxe esan ebara irakurri neban: **An Ameriketari izkera bat zala itz guzti guztiak españerazkoak eukazana baiña alan eta be bestelako izkera zala.** Zelan izan ete-ledike orixe baiña? Itz guztiak bardiñak eta izkerea bardiña izan ez? Bai, izan lediken gauza da. **Joskerea** bardiña eztalako. Joskerea ADITZAK egiten dau; beraz aditza, itzak bata besteakaz josten dauzan itza bestela izan ezker, izkerea be bestelako izango da. Argibidez, orrek or goyan jarri dodazan iru euskel-itzok nik engelandar bateri onela esan neuskioz: **The gizon with the txakur has gone to the mendi,** eta parantzetar bateri: **Le gizon avec le txakur est parti pour le mendi,** eta españar bateri: **El gizon con el txakur ha marchado al mendi.** Orrek irurok eztabe ulertuko nik zer difotsedan, baña batake engele-raz egiten dodala eta besteak parantzeraz eta españeraz usteko dabe. JOSKEREA, aditzak egindako joskerea engelandarazko naiz parantzterazko nai españerazkoa dalako.

Orrelakoren bat jazo yakun guri geure euskereagaz. Askok, batez be ni lez baserritik jaupalgai-ikastetxera joan gintzanok, an baserrian be bai-genkian **aragi** ta **okela** etzirala bardin. Bai genkian zer zan aragia, zer zan okelea eta zer zan gizona. Baña joan gifiari Ikastetxe Nagusira eta an lateraz irakasten euskuen eta DE INCARNATIONE; DE SACRAMENTIS; DE VIRTUTIBUS eta orrelakoak irakurten gebazan. Zer ete-dok **incarnatione** ori? Toma deunak irakasten euskun or **Caro, carnis** edo aragi gizon-ordez egoala. Atala guztiaren ordez. Baña ikastolean bertan beti lateraz **incarnatio, incarnationem** erabilten geban bai, eta beste oldozkun barik geure baserrietara atzera joan gintzanean, baserrietarrak baño geyago baigekiagula-ta **Jaungoikuaren inkarnasifua** irakatsi geutsen. Iñoiz etxakenguren gure atzekuai bururatu: Jaungoikuaren gizon-egite edo aragitze edo gizakunde edo olakoien bat esaterik. Baserrietarrak obeto ulertuko eben ori esan ba-geutsen, baña errezago eta jakintsu-antzoago zan inkarnasifua eta olako laterkadak esatea eta esan eta egin. Orrela gure euskera lateldu egin geban.

SACRAMENTA goi eskarra emoten daben ikurrak dirala be irakurten geban guk ikasten gebazan idaztietan. **Signa, Gratiam** significant eta orrela. Guk, baiña, naiz ta bertan baserrian **ikurra** ta **antza**

ta **eskarra** eta orrelakoak geure artean erabili, izkintokira zerurako bideak irakasten joaten gintzanean **sakarmementua** eta **grazia**, eta **sig-nua** eta orrelakoak erabilten gebazan. Guk geure euskerea ondatu ta erail egiten geban. Geu jaupari edo abadiok gara errudun gauza askotan. Geuk euskerea jaso ta landu ta biribildu ta garbitu egin biar dogu. Eusko-oldozkerea eztirala itzak bakarrik esan dot eta orrela da izan be, baiña itzak garbitu eta joskerea biribildu egin biar doguz.

Zelan baiña?

A) **Itzak eurak ondo bananduz**. Itzetan eztagola izkeraren indarra esan dot eta orrela da izan be, baiña edertasuna, osotasuna eta biribiltasuna itzetatik etorri dator. Itzak geureago dirala eta euskerea bera be geureago izango da. Argibideak: Erderaz gauzaen **tasuna** agertzeko batzutan **-ano**, beste batzutan **-al**, beste batzutan **-ense** ta orrelakoak erabilten dabez. Ikusi emen: africANO, territorial, gijonENSE eta orrela. Guk geure euskera aberatsean bai-doguz gure atzizkiak (postposition) orrek lako oldozkunak agertzeko. Guk geure **-ar**, **-tar**, **-ko**, **andiko**. Ikusi emen: BilboTARRA, DurangARRA, lurreKOA, ItxasANDIKUA eta abar eta abar. Ez geunke iñoiz bé esan bear bilbainua, duranguesa, terrenala, ultramarinua eta olakoak. Guk erderazko **-ismo** ikurtzeko be bai doguz geure itz polit, bigun, goxo **-tasun** eta **-keri**. ABERRI-itza gura ezpa'dogu eta bere orde erderazko Patrie naiz Nation maiteago ba'dogu zegatik ez esan PatrioTASUN (ona danean) edo PatrioKERI (okerra danean)? Erderazko **COMMUNISM** eta **Catholicism** euskeraldu gura ba'doguz eta BALTSAKERI ta OROKARTASUNA maita ezpa-doguz zegaitik ez esan KomunKERI eta KATOLITASUNA? Bide onez pozarren irakurri dot azkenengo ZERUKO ARGIA'm (152'garren zenbakia) Kintana'tar F. Xabier'ek darabillan TELEikuskiña. Nik neuk urrutikuskiña erabilten dot, baiña bide erdiz geratutea buruz bera jaustea baiño oba. Teleikuskiña telebisifiña baiño askoz oba, biok baiño obe urrutikuskiña. Sustrai biok euskerazkoak.

B) **Joskerea ondo zainduz**. Itzak banandu ta gero bata bestea-gaz josi ta lotu egin bear dira eta orretarako be geure jostorraz eta geure aria erabili bear. Euskereak bere bideak dauz orretarako be. Gure zoztorrik aundiena erderaz oldoztu egitea da. Erderea derabilgu ataz eta barruz, erderea derabilgu irakurten doguzan idaztietan, erderaz geyenetan idazten dogu eta beraz erderaz oldoztu. Orixe da gu galtzen gauzana. Nik neuk beti euskeraz idazten dautset eusko-abizendun gutziaz euraz idatzi bear dau'sadanean. Bein Lon-

don'etik Roma'rako bidean Milan'en gelditu bear nintzala-ta bertan lekai-me-buru (monjatxuen nagusi) zanak euskel-abizena e-bala-ta, euskeraz idatzi neutsan. Lekaimetxu arek ezin siñistu bere begiai... baiña euskeraz? esaten eutsan bere buruari, Euskeraz!! **Josaus!!!** Ez eban uste euskeraz idazkitxu bat idatzi leikeanik.

Beste baten España'ko Ordez-kari edo konsul bateri be euskeraz, euskel-abizenduna zalako. Onek bai eban maita euskerea, baiña Egip-to'n urte askotan bizi izan zalako eta Belgika'n ezkondua zalako, er-deraz erantzun eustan, baiña euskerea'ganantz bere gogo ta biotza lenengoz bigurtuz. Euskerea landu ta euskerea biribildu dagiguzan. Eta orretarako euskerea biotzez eta egiz maitatu dagigun.

Besteai euren uts-egifñak buru-gain jaurtitzen ibilli barik, geuk geure buruak aztertu eta zuzendu dagiguzan. Jon XXIII maitetasun-bideak ludi ganean zabaldu dauz. Oñarte gu orokar edo katolikarrok bai-gebiltzan besteen okerrak zuzendu gurariz. Jon XXIII esan eus-kun: Arek euren okerrak ba'dabez guk geure uts-egifñak doguz. Beraz ...**neu-neure erruz** esan eta aurrera euskera aldez eta edo-zelango osotasun-aldez lan egifñik.

Euskara! Yalgi adi kanpora... yalgi adi plazara... yalgi adi dantzara. Baiña plazara eta dantzara ezingo da yalgiko, ezingo da agertuko **ondo jantzita** egon ezik.

*Bizidun guztiak arraultz ernaritu batengandik
sortuak dira.*



*Zelula bat!
Zelula bakar bat!
Guztiok horixe izan gera noizbaif. Protozoen antzera!*



*Bizidunen kondairan gauza bat dugu harrigarri:
sexo edo kuntzen agerpena.
Zertarako bikoiztasun hau? Zergaitik kuntza bi: harra eta emea?*

Aldakuntzaren agerpena

xabier kintana

Aurreko "Jakin" batean esan bezala, hona hemen "bizitzaren hasikera" izeneko idazlanaren bigarren zatia.

Orduan esan nuenez, oraingo bizidun guztiek aldakuntza, eboluzio, osoa igaro dute nolabait duten gorpuzkera eta itxura hartu arteraifio.

Aldakuntzak eraginda, protozoak, zelula bakardunak, bikoiztu, hirukoiztu ta ugaldu egin ziran beste bizidun korapiltsuagoak sortuaz: harrak, noski,

Harrengandik arraiñak sortu eta beronengandik urlurtarrak. Ondoren, narrasti, ta, azkenez, odol berodunak.

Ta orain pentsa dezagun, ta oraingo bizidunak nola sortzen dira? Nundik gera gu sortuak?

Bizidun guztiak arraultz ernaritu bategandik sortuak dira. Amak sorturiko arraultz ta aitak ernaturikoa. Abere guztiengan berdin gertatzen da.

Arraultza handi edo txiki, luze edo labur izan daiteke baiña funtsean eta gunean orobat berdin. Arraultz guztiak zelula bakarrekoak dira.

Harren espermatozoideak ere berdintsuak dira zeregifean. Arraultz heldu bat espermatozoide batekin elkartzen eta batzen danean, bizitzaren misterioa sortu eta zelula oso ta geigarria egiten da.

Zelula bat! Zelula bakar bat!! Guztiok horixe izan gera noizbait. Protozoen antzera!

Gero zelula hori zatitu eta ugaltu egin zan erdibituaz. Bi, lau, zortzi... hamasei... eta gero ta zelula gehiagoko gorpuzkia sortzen hari zan.

Amaren sabelean zeluladi edo zelula-elkartze hura mail eta itxura askotatik pasaten zan.

Zelula bakarra zanean biribilla zan guztiz; geroxeago, erdibitzerakoan, masusta baten taiu hartu zuen, ta, gero, esponja batena, barruan hutsik zegoalarik.



Masusta hontatik zati bat luzatuaz doa ta har edo zizare baten modua hartzen du. Gero, har edo zizare hortan buru antzeko bat diferentzitzen da ta bertan loi beltz bi: geroko begiak. Burugai horren ondoan, okozpean, idikidura batzuk agertzen dira, branki-idikidurak. Idikidurok arrañengan lotatzen dira oindio ta bertatik ura sartu egiten dute beragan dagoan oxigenoa hartzeko, gero branki-zulo horietatik bertatik ostera ere kanpora egozten dute ur hori. Mail edo fase hontan lehengo arrain aroa agertzen zaigu.

Pixka bat geroago "arrain" itxurakoan lau abar hazten zaizka, beso bi ta anka pare bat izango diranak.

Baiña hala ere oindio ez ditu branki-idikidurak galdu. Gaiñera, buztan ttikitto batekin orniturik dago. Berau urlurtar aroko seiñalea dateke, daukon itxura trittoi edo apotxali batena baita.

Begiak gero ta zehatzagoak dira ta atzamar behetzak nabarmenagoak zaizkigu. Branki-zuloak gero ta txikerragoak dira ta laister orbandu ta itxi egiten dira. Narrasti aroa dator.

Azkenean buztana bera ere urritzen hasi da ta, pittinka pittinka,



Argazki hauetan (1966'ko Otsailleko Paris Match izeneko aldizkaritik hartuak) bizitzaren pausoak ikusi daltekez argiro. 1) Espermatzoideak igar doaz arraultzagana, 2) Arraultza ta espermatozoideak. Bertan elkartzea ta bizidun berriaren sortzea dago. 3) Hiru astebeteko gizakumekia. Izan ere zapaburu baten antza du ta antzifnako garaien oroa dakarkigu. 4) Lau astebeteko kumekia. Beragan begia ikusten da ta beso anak ere bai. Irudi hori baiña, gizakumeki batena barik, behi edo arrain batena izan zeitekean, berdinkí. 5) Hamazortzi astebeteko kumekia. Giza itxuraz jantzita dago honezkero.



bukatu egiten da. Pertsona itxura agertzen hasi da. Hala ere kumekiak ez du oraingo pertsona baten irudia. Atzeraturik jaiotzen diran umeak eta haur galtzeak tximio antzekoak izaten dira, antziñako gizonen antzekoak, hobeki esan.

Jaio aurreko azkeneko hillebeteetan, kumekiak gurasoen antza hartzen dute zehatzagoki ta sasoi hortako odolaldeena.

Agirian dago, beraz, nola pasa eratzen gaituen naturalezak aurreko aldakuntza pauso guztietatik jaio baiño lehen. Ta hemen gauza bat aurtortu behar dut. Jaio aurreko aldakuntza faseak ta Geologizko aroetan pasaturikoak elkar kidetasuna ba daukatela ta oraingook ordukoen oroigarriak dirala, neronek pentsatu nuen ta egizat hartu. Orain oster, Amerikak argitu ditudalakoan nago. Izan ere, nik esandako guzti hau Ernest Heinrich Haeckel izeneko zientzist alemanak topatu ta esan egin zuen. Hala ere nik, neuk beraren lanak irakurri baiño lehen, susmatu nuen niretik.

Baiña etor gaitezen lehengo arira. Ederki, esan lezait norbaitek, lehenbiziko zelulagandik aria artez eta zuzenki heldu da azkeneariño, baiña hala ere zure teori hori ez da osoa. Zer pasaten da lehenbiziko arraultz edo zelula hori? Nundik sortzen da zelula hori?

Txit ongi egifia dago galdera hau. Sala nadin bada erantzuten.

Arraultz hori beste zelula batzuek sortua da. Horretarako material eta gai batzuk erabili ziran.

Zitoplasmarako, albuminoideak, lipoideak, karbonozko hidratuak ta gatz mineralak. Guztiok koloidezko nahaste bat osatzen dute.

Nukleoan lehengo guztiaz gaiñera azido nukleikoa arkitzen da.

Gai guztiok ikaragarritzko molekula sareak dira (ikus irudiak), oxigeno, nitrogeno, karbono, hidrogeno, sulfre, burdin, fosforo, kaltzio, potasio, magnesio ta sodioz egifiak.

Materialok kanpotik ekarriak ditu gorputzak eta barruko zelula ta organuek eorik ta moldaturik.

Kanpotiko elementuok landareek organikatuta zegozan ta airetik eta lurretik baturikoak ziran.

Beraz zelula bakar edo arraultz horren iturburuak naturalezako atomo ta txatañ xumeak ziran hor-han-hemen bilduak. Antziñan bezala, horregatio, antziña urte asko pasatzen zan material horiek elkarren hartu emanetan jarteko ta bata besteari eragin ahal izateko; orain, berriz, gorputzak batu eta elkartu egiten ditu jatean. Orobat gertatzen zaika aldakuntzari. lehen milloi askotatik zehar gertatzen dana, orain arrapaladan, bederatzi hillebeteetan gertatzen da. Dena gomuta, oroi bat baiño ezpaita.

Bai, oroi bat. Bestela zertarako du pertsona baten umekiak horelako arrain branki-zulorik? Ez arnas egiteko, oxigenoa amaren odoletik baitoakio. Egia beste hau da: pertsonon asabak, noizbait, arrain idurikoak ziran eta guri ematen digute o'ndio beren oroia jaio aurreko egokieran.

Ikus bada grafiko hortan esaniko aldakuntza pausoak jaio aurreko bizitzan.

ALDAKUNTZA BIDEA BESTE ANIMALIENGAN

Gizonaz esan dudana ba da beste animaliez ere. Azkena baiña, bestelakoa da. Animalia nagusiak: arraifiak, urlurtarrak, narrasti, hegazti ta ugazdunak, fase berdifinetatik igarotzen dira, baiña bakoitzari bere mailla dagoka ta ez doa aurrerago.

Honela arrainkumeki edo feto batek zelula bakardun itxura, har itxura ta azkenez arrain antzaz lotu ta jaioko da.

Urlurtarrak, igelak, apoak, tritoiak eta honelakoak arraultzetik har eta arraintxu irudiz jaioten dira (zapaburuak) beronek, ordea, aldatze bat daukate geroago ta brankiak galduaz biririkak eta anak hazten dituzte. Muskerrak, sugeak eta beste narrastiak urrunerago doaz. Zapaburu edo kumeki aldia arraultz handi ta azaldun baten barruan pasaten dute ta bertan arrain eta urlurtar aroa igaro ta bukatzeko azal ezkatadunez jaio egiten dute arraultzaren kaska apurtuz.

Berdin txoriengan ta ugazdunengan ere bai. Berauek baiña, kumealdi osoa amaren sabelean egiten dute ta jaiokeran nagusi antza daukate txikerragoak badira ere.

Hauetatik garbi ikusten da animalien kumeki arozko itxurak antzekoak izan behar lirakela muñiflean, arrain edo urlurtar aroan bai pertsonentzako, bai hegaztientzako eta baita narrastiengan ere.

Ta izan, ba da honetara. Ta funtsean ez ezik, baita ageriz ere. Egia esan gaitz da, eziña ez esatearren, fetoak ikusirik, pertsona batena behi batenaz aldaratuaz bakoitzarena zein dan esatea. Hain dira berdintsu! Ta arrazoiak hola izan behar duela diosku. Aldi haietan, behirik ez pertsonik ez zanean, batentzako ta bestearentzako asaba txit antzekoa izango baitzan.

ERNARITZEAREN BEHARRA

Bizidunen kondairan gauza bat dugu harrigarri; sexo edo kuntzen agerpena. Zertarako bikoiztasun hau? Zergatik kuntza bi: harra eta emea? Ez ote zan errazago kuntza bakar bat egitea ta berberak beragandik aitabagako kumeak ukan? Badirudi baietz, baiña hori izatez gauza ezifia da animala nagusien arloan behintzat.

Artropoden artean ba dira honelako zenbait kasu. Ba dira, bai, insekta eme batzuk, harren espermatozoiderik bage arraultz eta kume egiten dituztenak, baiña belaualdi asko igaro ezkeru ta bitartean harrekiko benetako ernaritzetik ezpadago arraza-endaka'u egiten da, ahuldu eta beheratu. Zizareen eta zelula bakardunen artean, protozoak, ernaritze bagako irautea erraxagoa da, baiña berauengan ere, azkenean ahuleria dator eta amiltzea.

Zertarako da bada emezko eta harrezko bizikien elkartzea?

Protozoen artean ugaltzea ernaritze bakoa dala esan dut. Horretarako, amebak ta paramezioak erditu egiten dira zati berdin bitan. Zati bakoitzean nukleo bana dago, aho bana, bakuola bana. Honetara luzaroan bizi daitezke. Baiña beti ez.

Dirudenez, nukleoko kromosomen molekula ahuldu egiten dira, energia galdu egiten zaie ta atomo sareak denboraz desegin. Molekula sare berriak behar dituzte orduan. Motor bateri ere, erabilliaz, zatiak eta piezak kastatu egiten zaizka ta pieza berriak behar ditu luzaroan funtzionatzeko. Pieza berriok zaharren antzekoak izan behar dira beragan zer egin berdifia euki dezaten. Horixe berori gertatzen zaie zelulei ere.

Paramezioak elkartu egiten dira horretarako ta ahotik batzen dituzte beren nukleoak. Horretara elkarri kendu ta eman egiten diote piezarik, elkarren truke. Zaharberitze hori egin ezkeru alendu egiten dira ta ostera ere luzaroan dagoz nukleo ahuleririk bage. Honen ondoren erdititzea datorkie ta ugaritasun handia.

Abere guztiengan holako bat ere jazoten da. Batek egingo balitu bere kumeak beraren antzera, laister ahuleria letorke ta denak geixotu egingo lirake. Gaiñera, baten irudikoak izan ezkeru, beragan gaitzen bat balego kume guztiak gaitz horidunak izango lirake.

Bi izanaz, berriz, kumeagan bitzutariko indarra dago, osorik berria. Hori kastatzeko gaitzagoa da ta iraunkorragoa. Kastatzearen garrantzia ahaide arteko ezkontzetan ageri da. Senideak sendo eta indartsu izanez gero ez dago ordorengoentzako arrisku ez perilik. Famili hortakoak gaizdun badira edo ahul izanaz, ordea, seme alabengan agertuko da zihurki eta nabarmen. Horra hor bada Romanov-tarrak, Espainiko erregeak eta beste errege famili asko. Haiengan geixo bat zegoan, hemofilia zeritzena, odol galtzea, elkarren artean ezkonduaz geitu egin zuten eta gizonezko askok bizia peril bizian jarri ere bai. Ejiptoko faraondarrak ordea, leifu sendoagoak izan bide ziran, neba arreben artean ezkondata ere dinasti asko euki baizuten.

inportantea

JAKIN'en urteroko billera

Garrantzi apartekoa gertatu da aurten JAKIN taldeak urtero egiten duen billeratxoa. Aldizkariarentzat eta euskal irakurle guztientzat. Horregatik, irakurleari eskatzen diogu, ez ditzala ohartu gabean pasa horrialde hauek, billeraren kronika antzekoa eta bertan sortu zen giro berriaren agerbide izan nahi dutelarik.

Zuzendaritzak aurretik zabaldu zuen deiar erantzunez, talde polita batu gisan agorraren 10'ean, Oñati'ko Bidaurreta'n, apaiz, praille ta laikoen artean. Beren ezin etorria adierazi zuten: Abel Muniategi'k (kartaz), Xabier Lebe ta Rafael Egiguren'ek (hitzez biok). Ez zen agertu Donosti'ko apaizgaien eta Urretxu'ko pasiotarren ordezkariak.

Billera aldizkariaren Zuzendaritzak prestatuta zegoen, Arantzazutik. Presentazio gisan, billeraren nundik norakoa finkatu eta beste zenbait obserbazio egin nahirik, hitz hauek an mintzatu zen Olaberria adiskidea:

"JAKIN'en barnetik ikusten ditugun zenbait prolema aztertzeke ta, ahal den neurrian, danon artean prolema horiek erabakitzeko asmoz antolatu dugu billera. Argia atera nahi genduke bertatik eta, ahal bada, erabaki ta konpromixo konkretu balzuetara iritxi behar dugu"... "Billera, hemen, danon artean eratu ta egosiko dugu, eztabaidan, elkar-hizketan. Hortarako, interesdun ikusten diren gai guz-

tiak merezi duten zabaleroan eta irikitasunean sakonduz. Baña, hitz onetan gelditu ez gaitezen, jomuga eta xede konkretu batean jartzea komeni zaigu begiari, hau da: **JAKIN aldizkariaren eta mogimendua-ren gaurko eginkizunean**".

Beste puntutxo bat ere hasieratik argitzea prexixo zela, adierazi zuen. Hain zuzen: **JAKIN orain artean eraman dutenen postura aldizkariaren aurrean**. Alegia, JAKIN ez dela ia —ez duela izan behar— fraille ta apaizgaien kaseta soilik. Suplentzi-lana izan dela eurena, orain artekoa. Ta, heldu dela ordua subsidiario eginkizuna esku egokietan uzteko. Honekin ez zen esan nahi, noski, Euskal-herriko elizgizonek zer egifik ez daukatenik aldizkari ta mogimendu hontan. Bai, egiteko astuna ta behar beharrezkoa gaiñera: esate baterako euskal arimaren Jaungoikoarekiko hartueman bereziak aztertzen eta euskal teologi bat gorpuzten. Dena eginkizun baita oraindik eremu hontan. "Baña beste zenbait prolema ta egungo Euskal-herriaren kezka ez dira gure eginkizun, direktoki behintzat, baizik laikoenak".

Honekin, JAKIN'ek aspaldidanik eman nahi izan duen pauso beharrezkoa adierazi nahi zen: ots, aldizkariaren deszentralizazioa eta desklerikalizazioa, teorikoa bakarrik ez, praktikoa batez ere. JAKIN "euskal gazteriaren" mogimendua bada, logikari jarraituz DANONA da; beraz, euskaldun guztion artean osatu beharrekoa.

Aski ezaguna da sarritan holamoduzko billerlan —eta guk ba genuen hontaz esperientzia zerbait— eman ohi den akatsa: dibagazioa eta lortu nahi denaren kontzientzi garbirik eza, azkenean elkar ezagutzearekin eta ikustearekin ez dela gutxi konklusio konformista ateratzeko... Zori onez, bildur hau harrika batean uxatu genuen gure artetik, oraingoan. Erabaki konkretuetara iristeko amorru bizi bat nabari zan Oñati'ko billeran parte hartu zuten oroen baitan. Horregatik, billera hau pentsa zitekean azkarrena ta teknikoena gertatu zen.

Elkar-hizketa giroa sortu bezain laister, lehenengo puntuari ekin zitzaion.

1. JAKIN'en EGITURA, ARIMA ta IDEIALOGIA...

Gaur egun, Herri oroek daukate beren prensa. Gero ta prensa hobeagoa. Ta, besteak beste, euskaldunon birtuterik handiena puntu hontan, inprobisazioa dela esan ditekete. "Z. Argia" mailla batera iritxi zen, orain zenbait urte. Berdin JAKIN. Baña zein da gure aldizkariaren prolema mundua eta postura prolema horien aurrean? Nola atera ditekete aurrera kaseta bat egitekorik, esateko xede edo plan berezirik gabe?

Aldizkari batek, bere baitan tendentzi batean itxi gabe, postura hartu behar du egungo gizarteko zenbait gertakizunen aurrean, batera ala bestera, ezkerrean ala eskubira joaz. Irakurleari **iritzia formatzen** lagundu. Honetara jokatzen dute itxurazko aldizkari mo-

derno guztiak. Aldizkariaren ideologia hau editorial sakonen bidez zertzen dute, batez ere, nahizta beste horrialdetan barna ideologi eta iritzi desberdineko artikulueri leku egin. Hala izan behar du, gainera, egungo gizarte pluralistan.

Ta eremu hontan dauka JAKIN'ek ere bere posibilidaderik handiena eta egitekorik premiaikoena: euskaltzaletasunaren une kritiko eta kezkatu huntan batzuen eta besteen lokarri bilakatuko den funtzeko giroa sortzen lan egitean.

Saiets hontatik begiratu, argi dago ezer gutxi egin dela orain-daiñokoan, kontzientziatz behintzat. Zer egin ditekete?

Puntu honek, programako inportanteena izaki, diskusio aberatsa ta interesgarria altxa zuen. Azkenean, erabakiak hartu ziren.

Ora'n arteko egitura zeharo aldatuz, aurrerakoan lau atal edo sekzio berezi eramango ditu JAKIN'ek:

1º atalean: Editorialak.

Bat edo bi. Politikaz, kristautasunaz, euskeraren defentsaz, zientziatz, sozial arazoaz tabar... izan ditezke. Dena dela, egungo proletarikari eta situazio berrieri bidera ateratzen saiatuko dire editorialak.

Editorial hauek, oso pentsatuak eta taldean elaboratuak edo taldeak aztertuak behar dute izan, ez pertsona baten iritzi partikularrak. Aldizkariaren pentsa-moldea beroiek adieraziko dute.

2º atalean: Artikuluak.

Artikuluek emango diote zenbaki bakoitzari gitarra ta berezitasuna. JAKIN kultura aldizkaria delarik, milla gai diferenteetat gerta ditezke. Politika, soziologia, erlijioa, artea, poesia... Betiere egunerokoetan baiño sakonago erabilliak, eta ensaio estiloan ahal izatea.

Herriaren iritzia libertatean formatzeko, atal honek ekilibrioa bilatzen saiatu behar zuela onartu zen. Hau da, artikuluguztiak ez ditezela izan iritzi edo tendentzi batekoak. JAKIN'ek debate edo polemikarako "tribuna libre" antzeko izan behar du. Izan ere ba dago-ta holako zerbaiten premia egungo euskaltzaleon artean, postura zerratuak alde batera utzi, ta benetako polemak elkarrekin eta egun argitan dialogatzen hasteko.

Tema edo gai bakoitza eragille baten kargu ta menpean uztea pentsatu zen. Eragille zenbait bertan izendatu ziren:

Rikardo Arregi: politika jeneralerako.

Karlos Santamaria: zientzia ta pentsamenturako.

Andoni Lekuona: soziologiarako.

Xabier Kintana: biologi ta eboluziorako.

Ibon Sarasola: literatur, poesi, zine ta teatrarako.

Jose Antonio Arana: euskal legedi ta kondairarako.

Ez dire guztiak hauek, ba, beste zenbait (e.b. erlijio arazo ta Elizaren mogimendurako) billeraz kanpo izendatzeko gelditu ziren.

Eragillearen eginkizuna mugatu nahirik, bere zatiaren motorra

bezela izan behar duela, esan zen. Berak egin ez arren, eragin egin behar du, besteak lanera bultzatu. Laburki: 1) bakoitzak bere zatia animatu, 2) ediorialen osaketan parte hartu, 3) bere gaiean zenbaki bereziak pensatu, 4) bere zatirako laguntzaille edo kolaboradore talde batekin egin.

3^o atalean: Informazioa, Kronikak, Komentarioak.

Laburki, biziki ta objetiboki emanak. Atal hau osatzeko zerrenda bat presentatu zuen norbaitek:

- * Politika mundialean: azken bi hillabeteetan gertatu diren gerta-kizun eta aldakuntza nabarmenen laburpenak, Gogoan izateko datoak, egunak.
- * Certako edo etxeko politika konketuaren arazoak eta zer ikusiak. —Españiar legediaren "reflejoak", ekonomi gorabeherak, sozial arazoak, tabar. (Dena informazio gisan). —Españi'ko ideia mogimendua, aldizkarietako polemikak eta prensan emandako informazio eta barriak aztertuz.
- * Teknika, zientzia ta literatur "nobedadeak", mundu zabalean.
- * Mogimendu europa-zaleen ahalegiak.
- * Elizaren kronika: azken aldian gehien aizatu diren gertaerak, ideiak eta polemikak. Erlijiozko ideien martxa munduan.
- * Euskal literatur eta kultur bizitzaren aztarrenak. Sariketa epaien kritikak etab.

4^o atalean: Liburuén iritziak edo bibliografia.

Zenbaki bakoitzean lau-bost reseña kontzientziz egiñak, eta garantzizko liburuétaz. Berdin euskal liburu argitaratu berriekin.

Esanaz gairera, urtean zehar zenbaki berezi horietako bat argitaratzea erabaki zen ("Cuadernos para el Diálogo" hillerokoak egi-ten duen antzera). Eragille saiatuen kontu gelditzen da lan hau.

Lehenengo puntu honen konklusio bezela: JAKIN'ek bere ideia berezlekin osaturiko programa serio bat presentatu behar du euskal kultura alorrean. Ez ideia zeharo determinatuekin (ba hau ez litzake posible, ezta komeni ere), baiña bai pentsamentu aski pertsonalekin. Hau guztia sinzeritatean eta egiazki egin ditekcan neurrian, noski.

2. TALDEA LEHENBIZI LORTU BEHARREKOA...

JAKIN'ek programa bikain hau beteko badu —baiña ez nolanañi, baizik egungo Euskal-herriak merezi duen tamañan—, talde edo redakzio-ekipo sendo bat sortzea, beste irtebiderik ez da ikusten.

Orain arteko Zuzendaritzak argi aitortu zuen bere eziañ aldizkariaren programazio berria itxuraz aurrera ateratzeko. Talde konprometittu bat, beraz, zenbaki bakoitzaren bizkarrezurra aurrez tajutuko duena. Bati eta besteari lanak, artikuluak eskatzeko eskubidearen jabe. Merezi dutenak argitaratu, ta gairuntzekoak baztertze

eskubide berdifiarekin. Bi edo hiru hillez behin elkarrekin biltzeko konpromixoarekin.

Hasiera batean, JAKIN talde hau zati bakoitzerako izendatu diren eragilleek osatuko dutela, onartu zen. Taldea urtero aldatu ditekete, hala behar izan ezkeru. Taldearen lehenengo batzarra Gabonetarako jarri zen. Eguna ta biltokia pertsonalki adieraziko dire bere egunean.

3. ZABALKUNDEA edo PROPAGANDA.

Elkarrekin bazkari legea egiteko tartetxo bat hartu ondoren, arratsaldez beste puntu bat ikutu zen, arras inportantea hau ere.

Apenas propagandarik egin duen JAKIN'ek gaur arte. Halare, pozgarri da azken aldi hontan berez datorren arpededunen ugaritzea, ta areago aldizkari hau minori batena zelarik. Bera da euskal kontzientzia eta kultura gosea egunetik egunera azitzen dijoanaren adieragarririk bikaiñena. Baiña zihur gaude euskaldun asko ta askok oraindik ez dutela ezagutzen. Ta, errebista hobeagotzen joango bada, beharrezkoa da arpededun berrien laguntza.

Erabaki konkreturik hartu ez bazan ere puntu hontan, euskal Ikastoletatik eta "Z. Argiaren" zabaltzaileengandik lortu ditezken erreztasunak estudiatu ziren. Prolema hontaz Jose Luis Agirre ta Felix Etxeberria'rekin pausatiago mintzatzeko gelditu gifian, berokiek diranez maixu zabalkunde kontuan.

Hau izan zen gutxi gora-behera jakinlarien azken billerako giroa. Baiña, amaitu aurretik, argipen bat egin beharrean arkitzen gera irakurleari. JAKIN'en programazio berria ez da kolpe batean lortuko. Oraindik falta diren aurtengo zenbakiak —hiru—, esate baterako, lehengo itxuran joango dire. Baiña, datorren urtetik, beste zerbait aski diferentea izango dela espero dugu JAKIN: euskaldunen benetako kultura kaseta. Hala bedi.

JAKIN'ek.